

151111K

Pedagogi Aldizkaria -11

1989

erdaldunak

murgiltze
systemaz



euskalduntzen



BILINTX
LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S. A.

Fermin Calbetón, 30 - tel. 420930

Esterlines, 10 - tel. 420224

DONOSTIA - 3

Fermin Calbeton 30ean, euskal liburu eta diska guztiak
aurkituko dituzue.


Esterlines 10ean, Pedagogia, Psikologia, Ekonomia,
Literatura, eta abar...., aurkituko dituzue.

elkar s.a.

Esterlines, 10
Telef. 426319
DONOSTIA-3

EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA, S.A

Haur eta gazteentzako liburu eta ipuin aukera ugaria.
AXUT, PERKAX, ITZUL, SOR, eta abar....



AURKIBIDEA

EDITORIALA	4
HIZKUNTZAK IKASTEKO MURGILTZE METODOA	5
EUSKARA ETA MURGILTZE SISTEMA	7
ELEBITASUNA GARUNEAN	11
EUSKAL IRAKASKUNTZAN, MURGILTZE SISTEMA BABES JURIDIKO-POLITIKORIK GABE	14
HIZKUNTZ - INMERSIO EGITARAUAK KATALUNIAN	16
HEZIKETA BEREZIA, EUSKARAZ ZERGATIK EZ?	18
ELKARRIZKETA. ERDALDUNAK MURGILEAN EUSKALDUNTZEN	20
ERDALERRIA EUSKALDUNTZEKO ESKOLA. LIZARRA IKASTOLA	24
PAZ ZIGANDA IKASTOLA ETA HAUR ERDALDUNEN EUSKALDUNTZEA	26
EUSKARA 2. HIZKUNTZA DENEAN. Kanpazar Eskola Publikoko esperientzia	32
KILOMETROAK 85 INGURUAN EGINDAKO IKERKETA	37
ELEBITASUNA EUSKAL HERRIAN: IKERKETA BATEN INGURUAN	38
BIBLIOGRAFIA. Liburu en laburpena	40

MURGILTZEA edo INMERTSIOA

Erdaldunak metodo honetaz euskalduntzeko bi era desberdin erabiltzen ari dira:

a) Erdaldun gutxi batzuk euskaldun taldeetan sartuz.

b) Ikastaldea erdalduna izanik irakaskuntza euskara hutsean emanez.

Argitaratzaile:
G.I.L.E.

Egileak:
Irakasle, guraso,
sikologolo, pedagogo
eta beste.

Diseinugile:
Irakasle Elkarte

Inprimaketa:
Gertu, S. Coop. Oñati

Fotokonposaketa:
Impel Legazpi

Dep. Leg.:
S.S. 509/82

GIPUZKOAKO
IKASTOLETAKO
IRAKASLE
ELKARTEAREN
ardurapean.

Oharrak:
Idazlanak bidali nahi
dituenak jo beza
helbide honetara:
Plz. Amezketa, 12 - 8.a F
Donostia
Tfnoa: 455100-22

IRAKASLE ELKARTEA
EZ DA HEMEN
AZALDUTAKO
ERITZIEN ARDURADUN
EGITEN

350 pezta.

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA,
UNIBERTSITATE eta IKERKETA SAILAK
onetsia. (89-VIII-14)

Editoriala

Egun nabarmen agertzen da alternatibek krisi sakona bizi dutela. Boteretik jotzen den txistuari jarraituz diskurtso posibilista eta instituzionalistan jausi gara. Lehen ez zeuden tresna eta bitartekoak izan arren, instituzioak markatutako bideetatik jarraituz behartuta sentitzeak itotasuna sortu du irakaskuntzan eta alternatiba progresistek ez dute gauzatzeko ezta bideratzeko lekurik aurkitzen.

Han hemenka bakoitzak bere txokoan egiten dituen ahaleginak bildu, indarrak batu eta indar eragilea izango duen ilusioi berria sortu beharra dugu. Asmo horrekin ISILIK, monografiko honen bitartez bide bat zabaldu nahi du eta aurrerantzean gure herriak behar duen eskolaren inguruan sortutako lan eta asmoen kokaleku ere izan nahi du, horrela, gorpuzteko beharrezkoa den bultzada eskeini asmoz. Instituzioek sortzen diguten itolarria gaindituz egitasmoak bildu eta gauzatzeko gunea sortu behar dugu. Herritarren behar izanei erantzuteko eta herri mugimenduak eskatzen duten erritmoarekin.

Egun irakaskuntzak Euskal Herrian bizi duen arazorik larrienetarikoa euskalduntzearena da. Instituzioetatik bultzaturiko elebitasun faltsu batek sortu zituen A,B,D ereduak eta gizartearen lasaitasunerako baliogarri suertatzen ari den hazkunde kuantitatibo bat lortzen ari bada ere (ia %100 "ikasten du" euskara) horrek ez du hazkunde kualitatiboan neurri bereko eragina sortu. Eta hor daukagu orain benetako apustua eta aurrerantzako urratsa. Euskara "bere" hizkuntza bihurtzea eta bizitzan gaitasun osoz aritzeko trebetasuna lortu behar dugu ikasleengan. Horretarako erderaren aldekoa suertatzen den "elebitasuna" baztertu eta MURGILTZE edo INMERSIO sistema bultzatzea jotzen dugu bide interesgarrien bezala.

Aldizkariaren ale honetan jaso ditugu bai eritzi horren inguruko aportazio teorikoak eta baita zenbait ekarpen praktiko ere; zuri dagokizu orain ekinbideak aztertu eta bultzatzea.

MURGILTZE edo INMERSIO sistema aurrera eramateko derrigorezkoa zaigu irakasleon konpromezu zuzena indartzea eta ikasle eta gurasoen inplikazioa lortzea. Ezinbestekoa da ikastola eta eskoletako arlo guztietan euskararen erabilera ziurtatzea, eta gure eragina zabaltzeko zenbait ekinbide era bateratu eta koordinatu batez bultzatzea. Euskal Herriko hezkuntz proiektora eraikitzeke dugun eginbeharretan begirale ez baino parte hartzaile zuzenak izateko apustua egin dugu.



u

Hizkuntzak ikasteko Murgiltze Metodoa

Ofizioz zein afizioz, Heziketaren munduan aspaldidanik murgildurik, gogokoa dut gaurko honetan hizkuntz murgiltzetaz zein hezkuntz eredua den eskolaz egitura ofizialetik egiten den irakurketa murriztaz eta 1789ko Frantziako Iraultzatik erakarritako "publikotasun" fetitxistari buruz zerbait plazaratzea. Elkarrekin ikasteko bere balioa eduki dezakeelakoan, hona hemen.

Eskola kontzeptua hizkuntzen normalizazioan

Soziolinguistika munduan aintzindari izan den Joshua Fishmanen ekarpena guztiz interesantea bada ere (ez dugu ahaztu behar C.A. Fergusonek 1959an hedatutako "diglosia" kontzeptuaren berrirakurketa, hain zuzen Elebitasunarekiko harremanetan ezarria, Fishmanen eskutik datorkigula -1966-) bere ekarpenarekin egin nahi den erabilera erabat kaltegarria izan daiteke. Eta erabilera diot, zeren Fishmanen mezua zerbait bada hizkuntz ordezkapen prozesuetan Hezkuntz Sistema arautuaren porrota aldarrikatzeko erakuntza kontzeptuala dugula. Bere hitzetan: "Sua suaz itzaltzea..." hau da, ezinezkoa da gutxiagotutako hezkuntza berpiztea beren aurka erabilitako prozedura berbera erabiliz. "Saio horiek ezer gutxi lagunduko dute belaunez belauneko (sic) hizkuntz trasmisoaren oinarri-oinarrizko eragileei aurre egiten, hizkuntza txikiaren gainbehera frenatzeko" (1).

Elebitasuna-Hizkuntza murgilketa

Egia esanda (agian 1928ko Hezkuntz Zientzietako Luxenburgoko Nazioarteko Bilkuraren eraginez edo) oinarritzko hezkuntzan bi hizkuntza sartzea oso kaltegarritzat jotzen zen. Quebec-eko Lambertek Bigarren Mundu-gerratea bukatu eta geroko esperientziak ezagutu arte Elebitasunaren islada praktikoa irakaskuntzan nolabaiteko "tabu"-tzat hartua zen adituentzat.

Mc Gill Unibertsitateko taldeak (W. Lambert, N. Holobow, F. Genesse, Leblanc, Chaplin, etab...) "hizkuntza murgilketa" zela eta hedatutako lanak ezagutuz geroztik, berriz, aipatutako metodoa bigarren kultur-hizkuntza ikasketa prozeduretan egokiena bezala kontsideratua izan da.

Halere, nahiz beren hitzetan adierazia, hizkuntza murgilketa lehenengo mailakoa, bigarregoa edota berantiarra deritzana izan, xedea, beti, irakaskuntza hizkuntza batez

soilik eramatea da. Hain zuzen, azpimarratu nahi den hizkuntzari (normalean beraz, gizarte hartan aurkitzen den hizkuntza gutxiagotuari) premiazko tratamendua emanez. Bitarteko eredu elebiduna erabiltzen bada ere emaitza, ordea, irakaskuntz elebakarra izango da.

Are gehiago, irakaskuntzarako hautatutako hizkuntza erabat hilik egon arren (Montrealeko hebraierazko esperientzia edota Kahnawahe-ko Mohaw indiarrena - Lambert eta Taylor- 1983) beharrezkotzat hartua izan ohi da kasu guztietan murgilketa osoz bukatzea. Ez dago, ildo honetatik joanda, elebitasunik, finean guztiz elebakarra den hezkuntza baizik.

Edonola ere, gogoratu beharra dago aipatutako esperientziek eduki dituzten emaitza pedagogiko arrakastatsuak, hauxe, onak direla lortu beharreko ikasedukin aldetik eta ez soilik bigarren hizkuntzaren bat bereganatu ordurako zeren Kanadan egindako ebaluaketak irakaskuntz egitarauekin batera zihoazenez ikasketa prozedura osoa neurtua izan da. Horrela eramandako irakaskuntza, gainera, aberasgarriagoa den neurrian psikoafektiboki hobeto orekatutako gizabakoak lortzen ditu (Lambert-1984).

Hemen bi Murgiltze
Sistema besterik ez
dira antzematen:

- **Gaztelerarena (A eredua)**
- **Euskararena (D eredua)**

Miquel Siguan-ek berak ere horixe besterik ez du defenditzen nik ezagutzerik izan dudanez geroztik-"hemos visto

el caso de los niños ingleses en Quebec. Como es sabido algo parecido esta ocurriendo en Euskadi y Cataluña" (El País 26/X/88).

Fishmanen kasuan bezala erabilera galanta somatu ohi dut honetan ere. Argitaratuta ko 87-88 datuen arabera Baskongadetan OHoko %66, 2k ez baldin badute euskara ikasten, edo ikastekotan ikasgai gisa besterik. Eusko Jaurlaritzaren terminologian "Irakaskuntza elebidunean" dagoen %14,3 horretaz beharrezko ikerketak egiten ez diren bitartean nahiz eta jakin B eredu anitz ezberdinen aurrean aurkitzen garen, "irakaskuntza guztia Euskaraz" (beraz, gizabanako elebidunak) %19,5 izanik, hezkuntz sistema honetan (orohar behatuta) "hizkuntza murgilketaz", eta are gehiago Kanadako esperientziak aipatzen aritzea ere, "estalpe ideologikoarena" egitea besterik ez da.

Murgiltze metodoak, afektibitate aldetik zein edukiei begira ere askoz aberatsagoak dira sistema arruntak baino

Konklusio Gisara

Bigarren hizkuntza ikasketen prozeduretan murgiltze sistemak haustura epistemologikoa suposatzen du. Hau da, adituen diskurtsoetarako bigarren hizkuntzaren eskuraketari

buruzko ikuspegia aldatu egin du. Bera dela medio, Pedagogian hain zuzen ere onuragarri bihurtu zaigu ama-hizkuntzak gain beste batekin lan egin ahal izatea irakaskuntzan.

Murgiltze metodoak, gainera eta esan bezala, frogatzerik izan du beste hizkuntza batez eramandako irakaskuntza horretan lortutako emaitzak (afektibitate aldetik zein edukiei begira ere) askoz aberatsagoak direla sistema arruntetan baino.

Baina:

1) Hemen indarrean dagoen legedian nahiz hezkuntza araudietan bi murgiltze sistema besterik ez dira antzematzen: gaztelerarena (A) eta euskararena (D)

2) Tarteko ereduak beharko lukeen arreta teoriko-praktikoaren eza dela medio eredu zehatz baten aurrean egotea baino hizkuntza eskuratzeko helbide guztiz ezberdin batzu, parekatu ezinezkoak ere, aurrean aurkitzen gara.

3) Sasi definizio pedagogiko honek hizkuntz irakaskuntzaren historian gauzatutako esperientziak kontutan eduki ez dituenez hemengo beharrei erantzuna eman ahal izateko guztiz exkasa geratzen zaigu.

4) Beraz, hizkuntzaren eskuraketarako diseinatu beharreko eredu pedagogiko, irakaskuntz arau eta, azkenik, legeek murgiltze-metodoak eskatzen dituen ezaugarriei kasu egitea ezinbestekoa dute. Bestela gaurkoari begiratzea besterik ez dago.

Fito Rodriguez Bornaetxea.

(1) IKUS: Jakin, 2. aldia, 28.



Euskara eta Murgiltze Sistema

Hizkuntz-egoeraren abiapuntutik eginiko hausnarketa

Denok dakigu gure agintariek Hizkuntz-Normalpenerako (.) aspaldian egin zuten apostuak Hezkuntz-Sistema duela ardatza. "Helduak euskararako betiko galdurik" zeudela esaten zigutenek

Eskolan ikusten omen dute euskararen iraupen-bidea.

Haatik, urteak joan urteak etorri eta euskalduntze mugimenduaren moteltzea, euskaldungoaren berezko hazkunde txikia eta Murgiltze Sistemaren (.) garapena oraindik egiteke dago.

Urteak eman ditugu euskararen inguruko eztabaidetan, urteak, bai, kementsu bezain antzu aurrerapausu handirik eman gabe. Ez genuke egindakoari uko egin nahi, baliabideetan, testugintzan, komunikabideetan, ... egin dena hor dago eta hor bego. Gutxi ala asko den, ondo ala gaizki egin den ez dugu oraingoz baloratuko, izan ere artikulu honen helburua bestelakoa bait da.

Esan dugunez urteak dira Hezkuntz-Sistema berreuskalduntzearen zutabetzat jo zela. Dena den ez dezagun inor engaina, Eskolak, orohar Hezkuntz-Sistema soilik ez du euskararen etorkizuna bermatzen eta are gutxiago bere erabilpena eta iraupena.

Euskarak bizi ahal izateko Hezkuntz-Sistema behar badu ere bizi izaterako baldintza nahikoa ez dela aitortu beharra dago. Euskarak Eskola (Hezkuntz-Sistema) behar du, bai, baina Euskaldungoari zor zaiolako eta ez besterik.

Gauza bat da Euskaldungoari Heziketa bere hizkuntzaz bermatzea, ukazinezko eskubidea beste aldetik, eta bestea euskarari ebatsiriko hitzun eta funtzioak (lurraldea ere) berreskuratzea.

Iraskaskuntzaren eremuari lotuko bagatzaizkio ere elebitasuna (.) eta Hizkuntz-gatazkari buruz zerbait esan behar dugu.

EUSKARAREN EGOERARI GAINBEGIRADA. ZENBAT DATU.

Azken urteotan euskarak (euskaldungoak) izan duen bilakaera aztertzekotan ondorengo koadroetan azalduko dugu.

Aldez aurretik 1981 eta 1986 urteetan eginiko "hiztun erroldari" buruz zeozer esan behar izango genuke, ondorengo hain zuzen ere, erabilitako datu bilketarako teknika eta galdesorta dela medio horren informazioa ez dela guztiz fidagarria. Dena dela ez gaitezen ur handitan murgil, zuhurtasunez erabili az interesgarriak suerta dakizkigukeelakoan hona hemen datuok:

AÑO	HABITANTES	EUSKALDUNES	PROPORCION
1867	-----	471.000	0,52
1970	1.878.636	467.935	0,2491
1975	2.073.173	500.508	0,2414
1981	2.081.461	448.879	0,2104
1982	-----	325.788	-----
1986	2.136.100	511.066	0,2466

Los años en negrita son los obtenidos a partir del padrón municipal

Fuente: "Atlas Lingüístico Vasco" R. de Olabuenaga, pág. 14. "Mapa Sociolingüístico" (borrador) Gobierno Vasco 1989

Ikusten denez euskaldungoaren proportzioak etengabeko galera jasaten du 1986. urte arte. Gure aldetik, zenbakiak kontrakoa badiote ere, ez dugu uste galera prozesu hori etendu denik, horrela 1988.ean zenbait ikerketan (argitaratu gabe) euskararen berreskurapen prozesua, ez dela pentsa zitekeen bezain bizkorra ikusten da. Gero gerokoak eta esku artean ditugun datuak plazaratu ditzagun:

KATEGORIAK	1981	%	1986	%	ALDEA	%
Euskaldunak	448.879	21,04	511.066	24,66	62.187	3,62
la-euskaldunak	246.589	11,85	362.567	17,49	115.978	5,64
GUZTIRA	695.468	32,56	873.633	41,97		
PROPORTZIOAK						
Euskaldunak	0,645		0,585			
la-euskaldunak	0,355		0,415			
	1,00		1,00			

Zenbaki ofizialen arauera 1981etik 1986ra euskaldungo %3,62 puntutan handitu omen da eta "la-euskaldungo" berriz %5,64 puntutan. Hizkuntzari begira argi dago, beste aldetik, "euskaldungo" dela euskarari eusten diona, hots, "euskaraz dakitenen" artean funtsezkoak direla, baina proportzioetan ageri denez "dakitenen" direlakoan artean euskaldungoak heren bat (1/3) baino gutxiago suposatzen du.

(.) Holako ikurraz seinalaturiko hitzen edo hitz elkarketen definizioak eranskin gisan jarririko hiztegitxoan agertuko zaizkizu.

Ez dugu honetan artikulua gehiegi luzatu nahi, interesaturik dagoenak informazio gehiago eska beza. Gure alde-tik gehien kezkatzen gaituen zenbait faktore agertarariz harira joko dugu. Hona hemen, bada, azken urteotako euskararen bilakaera ezkorren faktore nabarmenenak gure aburuz:

- Euskararen erabilpen murrizta maila guztietan, bereziki famili giroan harik eta euskarak ziurtzat zuen zenbait funtzio arriskuan jartzeraino.

- Euskaldungoaren jaiotze-tasa txikia.

- Euskalduntzen mugimenduaren ahulezia maila guztietan.

- Euskara ikastera doan ikaslegaren aldaketa:

. Adinatik, euskaltegi eta ikastegi guztietan gaztetu bait da.

. Euskararekiko motibazio eta jar-reren aldaketagatik. Orain lehen baino "instrumentalagoak" direlako ("lorpen motibazioa").

- Gaurko Hezkuntz-Sisteman, salbuespenak salbuespen (ikastolak, "D" ereduak,...) ume erdaldunek O.H.O. ren amaieran ez dute lortzen ez komu-nikaziorako ez euskaraz ikasi ahal izateko behar den hizkuntza maila. Horiek horrela zera esango genuke; horrelako umeengan elebitasunaren eragina ezkorra (.) dela.

- Jaiotzez euskaldunak direnak gero eta gazteago gero eta arinago erdalduntzen (elebiduntzen) dira.

Azken bi puntu horien sakontzeari lotuko gatzazkio hain zuzen. Ikus dezagun bada, EAEko "Soziolinguistikazko Maparen" zirriborroko 36. orrialdean agertzen dena:

Jaiotzez euskaldunak direnak gero eta gazteago gero eta arinago erdalduntzen (elebiduntzen) dira

"..., adina jaisten den heinean ama-hizkuntza (.) euskara bakarrik dutenen urterik urterako galera ikus daiteke; eta bestetik, ama-hizkuntza (.) euskara eta



gaztelania, biak batera, dituztenen urtetik urterako gorakada azaltzen zaigu adin txikienetan: %3,60, 25 urtekoen artean %4,37, 20 urtekoengan %5,29, 15 eta 10 urtekoengan eta %9,10 lau urte dituztenengan."

"Ama-hizkuntza (.) euskara duten herritarren proportzioa gutxituz doa adina jaistarekin batera 12 urte arte. 12 urtetik behera egoera egonkorra da"

Aipaturiko "Soziolinguistikazko Mapak" agertzen dituen datuei kasu egingo bagenie zera esan genezake: jaiotzez euskaldunak (%20,35a) eta elebidunak (%3,97) direnak kasik euskaldunak (euskaldungoa 524,66a) beste direla, hots, ama-hizkuntza (.) erreferentziatzen harturik euskarak %3,62 puntu baino %0,34 puntu irabaziko luke.

Gainera "ama-hizkuntzat" (.) zer jotzen den kontutan hartu behar dugu, hau hain zuzen, hiru urte arte ikasiriko lehenengo hizkuntza, eta, ondorioz ezin esan horretan Hezkuntz-Sistematik orohar inolako eraginik izan duenik.

Ez genuke etsikoiak izan nahi baina, batzuk urak euren errotara eramanez esan ohi duten bezala zenbakiak zenbaki. Zenbakiak, ikusten denez beste era batera interpreta daitezke baita guk euskaldunok antzematen dugun errealitateetik hurbilago erara ere. (ez ote?).

Azaleko azterketa baino ez bada izan gure helburuetarako nahikotzat jo dezakegu, hots, hizkuntzen arteko desoreka, areagotu ez bada, gutxienik mantentzen delakoan gaude.

Zeuon buruetan darabilkizuekeen galdera, oster, zera izan daiteke:

Deredukoek salbuespen, ume erdaldunek O.H.O. ren amaieran ez dute lortzen ez komunikaziorako ez euskaraz ikasi ahal izateko behar den hizkuntza maila

Hezkuntz-Sistematik zein papera joka dezake euskararen berreskurapenean?

Auzi ilun horri argi izpiren eman nahian ondoko koadroa abiapuntutat hartuko dugu (HAMERS, J.F. & BLANC, M. "Bilinguisme et Bilinguisme" 311. or.). Koadro horretan erabiltzen diren ikurrak honako hauexek dira:

Ha = Hb (edo Hb = Ha) umetan aldiberean ikasiriko hizkuntzak.

H1 Lehenengo mementuan ikasitako hizkuntza.

H2 Bigarren mementuan ikasitako hizkuntza.

H. Mintza-gaitasuna (.) bere osotasunean (ez H1-rena ezta H2-rena ere).

Euskara erdararen parean jarri behar badugu, bide bakarra murgiltze sistema eta zehazkiago murgiltze goiztiarra izango litzateke

Lehenengo zutabeen elebidunen artean eman daitezkeen kasuak daude. 1. eta 2. lerroetan aldiz, "elebiduntasunari" (.) legozkiokeen faktore edo aldagaiak, hurrenez hurren:

-Hizkuntz-funtzioen jabetze edo bereganatzea:

. Kopurua

. Funtzioekiko hizkuntzen arteko erlazioa.

-Hizkuntzen gizarte mailako balorapena:

.Zein nolako mailakoa.

.Hizkuntzen arteko erlazioa balorapenekiko.

-Norberaren hizkuntz-garapena:

.Maila.

.Elebidun izate eta izandakoaren eragina.

-Elebiduntasun (.) forma probalea:

.Hizkuntz-gaitasunari begira.

.Elebiduntasunaren garapen orokorrekiko.

Ekin diezaiogun bada aurreko koadroaren azterketari baina orain Euskal Herriko hizkuntz-egoera kontutan harturik. Gure ustez agertzen diren aldagaietan euskarari dagozkion ezauzgarriak honako hauexek izango lirateke:

-Hizkuntz-funtzioen jabetze edo bereganatzea:

.Kopurua. Euskarak orohar gizarte mailan eta bereziki Hezkuntz-Sisteman soilik zenbait funtzio betetzeko balio du.

.Funtzioekiko hizkuntzen arteko erlazioa. Gaur egun eta salbuespenak salbuespen erderen aldekoa da.

-Hizkuntzen gizarte mailako balorapena:

.Zein nolako mailakoa. Oso eskuzabalak izanik eman dezagun euskarari zein erdarari tokian tokiko edozein balorazio egotz dakieke (Goi/erdi/Behe mailakoak).

.Balorapenekiko hizkuntzen arteko erlazioa. Gure ustez hizkuntzen arteko desoreka balorapen diferenteetan islatzen da ere, jakina beti erderaren alde (gizarte mailan).

Demagun goiko hori ontzat hartzen dugula, orain Euskal Herriko populazioan hizkuntz-ikastordenaren arauera honako multzoak aurki genitzazke:

1. Inoiz elebidundu daitezkeen *elebakarrak*.

2. Elebidunak. Gaurko "euskaldun" guztiak:

2.1 Euskara eta Erdara (gaztelania frantsesa) *Aldiberean* ikasten dituztenak.

2.2 Euskara lehenago ikasten dutenak.

2.3 Erdara lehenago ikasten dutenak.

1. Taldea aparte utzirik eta arestian presentaturiko koadro eta oinarriak gogoan izanik hausnarketa sinple bat egingo dugu.

Euskara eta erdera *aldiberean* ikasten dituztenei (2.1 taldea) dagokielarik koadroan hiru kasu (1,2,3) ikus ditzakegu, horietatik ezarritako aurreiritziak direla bide lehena (1) baztertzen dugu hirugarrena probableena delarik. Edonolaz ere elebiduntasunaren (.) eragina *neutroa* izango litzateke.

KASUA	HIZKUNTZEN IKASTORDENAREN	HIZKUNTZ-FUNTZIOEN JABETZE/BEREGANATZE		(BI) HIZKUNTZEN BALORAPENA		HIZKUNTZ-GARAPENA		ELEBIDUNTASUN (*) FORMA PROBABLE	
		Funtzioen kopurua: -Guztiak -Zenbait	Hizkuntzen batzabeste inportantzi funtzioen ikastaldian	Mailako: -Goi (↑) -Erdi (E) -Behe (↓)	2 hizkuntzen arteko balorapen erlatiboa	Maila: -Altua -Mugatua	Elebidun izatearen eragina hizkuntz-garapenean: -Handikor ↑ -Minimo ∅ -Geldoa ↓	Hizkuntz-gaitasuna 2 hizkuntzatan -Oreka = -Joera = -Nagusi >	Elebiduntasunaren eragina garapen orokorran Gehikor + Neutro 0 Kenkor -
1	Ha = Hb	Guztiak *Ha = Hb*ren bitartez	Ha = Hb	Ha ↑, Hb ↑	Ha = Hb	H. altua	↑ Ha = Hb-ren bitartez	Ha = Hb	+
2	Ha = Hb	Guztiak *Ha = Hb*ren bitartez	Ha = Hb	Ha E, Hb E	Ha = Hb	H. mugatua	∅ Ha = Hb-ren bitartez	Ha = Hb	0
3	Ha = Hb	Guztiak *Ha -ren bitartez Zenbait Hb-ren bitartez	Ha > Hb	Ha ↑, Hb E	Ha > Hb	H. altua	∅ Ha > Hb	Ha = Hb	0
4	H1 lehenago	Guztiak 1. Hiz (h1) bitartez	H1 = H2	↑H1, ↑H2	H1 = H2	H. altua	↑ H2 sartuz	H1 = H2	+
5	H1 lehenago	Zerbait H1 bitartez. Funtzio berriak H2 bitartez	H2 > H1	a) H1 E, H2 ↑ b) H1 ↓, H2 ↑ c) H1 E, H2 ↑	H1 = H2 H2 > H1 H2 > H1 H2	H. (?) H. mugatua H. mugatua	∅ H2 sartuz ↓ H2 sartuz ∅ H2 sartuz	H1 = H2 H1 = H2 H1 > H2	0 0 0 asim. H2
6	H1 lehenago	guztiak H1 bitartez	H1 > H2	H1 ↑, H2 E	H1 > H2	H. altua	∅ H2 sartuz	H1 > H2	0

2.2 taldeari dagokionez (jaiotzez euskaldunak) koadroan (H1: euskara; H2: erdara) hiru tipologia aurkitzen dugu ere. Arrazoiak goian emanda eta argi dagoelakoan talde honentzat boskarren tipologia hartuko genuke. Honetan hiru posibilitate daudelarik Euskal Herrian hirurak eman daitezkelakoan gaude. Ikusten denez elebitasunak (.) garapen orokorrean izan dezakeen eragina edo kenkorra “-” (.) edo neutroa (n), harik eta asimilatzeraino ere, izan daiteke.

Hirugarren taldekoak (2.3), jaiotzez erdaldun elebakarrak, azkenik, bertoko hizkuntz errealitateari begiratuz 4. edo 6. tipologia sartuko genituzke (H1: erdara; H2: euskara direlarik). Dena den 4. tipologia Murgiltze-Sistimari (.) dagokiola aitortu behar dugu, hots, orain artean ikastoletan eta antzerako ikastereduetan ikusi ahal izan dena. Euskarari behar adina funtzio edota zor zaion garrantzia ematen zaionean haurrek erdararen hizkuntz-gaitasunari (.) eusten diote hainbat ikerketetan ikusi ohi denez.

AZKENEKOAK

Labur bilduaz eta esandakoari jarraiki:

- Gure haurren artean erdaldun elebakarrak nagusi direlarik elebidunak gero eta gehiago dira euskaldun elebakarrak murriztuz doazen neurrian.

- Hitzun talde guztien artean soilik jaiotzez euskaldunak direnek jasan dezakete elebiduntasunaren (.) eragin kenkorra (.). Erdaldun elebakarrek (edo elebidunek) Murgiltze-Sistemaren izan dezaketen elebiduntasunaren (.) eragina neutro edo gehikorra (.) izan daiteke baina ez kenkorra (.).

- Hezkuntz-Sisteman zuzenena elebiduntasunaren (.) eragin gehikorra (.) bilatzea bada, eta da, euskara erdararen parean jarri behar dugu. Hortaz bide bakarra Murgiltze-Sistema (.) eta zehazkiago, Murgiltze Goiztiarra (.) izango litzateke.

- Beste edozein hizkuntz-iharduera pedagogikoak garapen orokorrari dagokiolarik ekar ditzakeen ondorioak euskaldunontzat kaltegarriak direlarik, erdaldunontzat kaltegarriak ez baina ezta onuragarriak ere.

Xabier Isasi

Hiztegia

ADINA EGOKIA / ADINA ERAGINKORRA:

Hizkuntz-bereganatze edo ikaskintzarako emankorrena den adina. Adin tarte hori baino lehenago gizabanakoak ez du behar den heldutasun maila; adin tarte hori pasa eta gero, ordea, gizabanakoaren hizkuntz-ikaskintzareako gaitasuna murriztu egiten da harik eta desagertzeraino.

AKULTURAZIOA:

Lehenengo kultura, baita lehenengo hizkuntza ere, galdu duen gizabanako edo giza-taldearen egoera; egoera horretara eramten duten prozesuak.

AMA-HIZKUNTZA:

Gizabanakoari dagokionez lehenengo hizkuntz esperientzian erabilitako hizkuntz-kodea edo hizkuntz-kodeak dira.

ASIMILAZIOA:

Norberarena ez den beste kultur-taldearekiko joera, zeinek Gizabanako edo Giza-taldearen bere berezko ezaugarri ethnolinguistikoak, ama-hizkuntza barne, galarazten dituen.

ELEBIDUNTASUNA:

Elebidunengan bi hizkuntz-kode eta bi hizkuntz-portaerekiko ematen den joera edo egoera psikologikoa. Aipaturiko egoera psikologikoa zenbait aldagaien bitartez zehatz daiteke.

ELEBITASUNA:

Komunitate edo Gizabanakoarengan (ikus “elebiduntasuna”) eman daitekeen bi egoera hizkuntzen aldibereko izate-egoera.

ELEBITASUN DIGLOSIKOA:

Bi hizkuntza (gizabanako edo gizarte mailan) direlarik haien erabilpenak diferente eta elkarrenganako osagarriak direnen elebitasun egoera bat.

HEZIKETA ELEBIDUNA:

Gutxienik bi hizkuntza, zeinengandik haietariko bat normalean ama-hizkuntza den, darabiltzan iharduera pedagogikoa. Noiz, zenbat denbora eman, hizkuntzen berealdiko edo elkarren segidako erabilpena eta hizkuntzen erabilpenen proportzioak kasurik kasu diferenteak izan daitezke.

HIZKUNTZ-GAITASUNA:

Hizkuntz-kode jakin baten erabilpenerako arauen ezagutza, baita komunikazio egoeran arau horiek indarrena jartzeko ahalmena ere.

HIZKUNTZ-KODEA:

Seinu-sistema jakin bati dagokion arau-multzoa. Arau-multzo horrek berau ezagutzen duten bi pertsonen arteko komunikazioa bermatzen du.

HIZKUNTZ-NORMALPENA:

Hizkuntza jakin bati hizkuntz-funtzio guztiak betearaztea edo, bederen, inguruko hizkuntzak dituen funtzio gehienak berrezkuratzea.

HIZKUNTZ-UKIPENA:

Gizabanako, (ikus “elebiduntasuna”) giza-talde edo gizarte (ikus “elebitasuna”) mailan bi edo hizkuntza gehiagoaren aldibereko izatea.

MINTZA-GAITASUNA:

Hizkuntz-gaitasuna eta gaitasun horri erantsi behar zaizkion erreferentzi psikologiko zein sozialak.

MURGILTZE GOIZTIARRA:

Eskolarizatze hastapenetatik ikasleen bigarren hizkuntzan hezkuntz-hizkuntzat hartzen duen murgiltze-programa (ikus “murgiltze Sistema”)

MURGILTZE SISTEMA:

Bere ama-hizkuntzan ez, bestean eskolarizaturiko ikastalde bati ezartzen zaion iharduera pedagogikoa. Baliteke ikasle horien ama-hizkuntza hezkuntza sistema horren bigarren mementuan erabiltzea.



Elebitasuna Garunean

Honako artikulua honetan, ahalik eta modu ulerkorrean, elebitasunaren neurolinguistikaz hitzegiten saiatuko gara, askotan arin samar aitatzen bait ditugu hizkuntza eta elebitasuna, honen natura eta eragina (elebitasunak, hizkuntz nahasteak eta patologiak sorrarazten dituela adibidez). Honi buruz, M. Paradisek egindako teoria desberdinen konpilazioa azalduko dizuegu eta gure egoerarekin lotzeko ahaleginak egingo.

Hasteko, garunean sartu aurretik, hizkuntzaren definizioa egin beharko genuke. Lecours eta lankideek eginikoa hautatuko dugu (1979):

“Hizkuntza, egoera psikikoen indibiduoarteko komunikazioa bideratzen duen nerbio-iharduera konplexuaren ondorioa da, hizkuntz komunitate bakoitzak berea duen konbentzioarekin bat datozen moduanitzeko zeinuen materialkuntzaren bidez egoera hauek sinbolizatzen dituelarik “.

Elebitasunaren neuropsikologiaren oinarrizko galdere-tako bat, ea gizabanakoaren bi hizkuntzek, burmuin errepre-tazio desberdinak dituzten da. Hipotesi asko dira pro-posatutakoak, eta hauetako gehienak oraindik ere baieztapen enpirikorik ez dute.

Pentsa daiteke, hizkuntza bakoitzak, bere gaitasunak berak zuzentzen duela; hau da, gramatika bakoitza bereizturik gorde edo/eta prozesa daitekeela. Gaitasunaren alterazio zehatzak hizkuntza batean bakarrik eta bestean gertatzen direla frogatu daiteke, orduan zentzuzkoa da hizkuntza bakoitza substrato neurofuntzional desberdinek zuzentzen dutela asumitzea.

Zenbait autorek, Pitres, Penfield, Pötzl, Minkowski, Veyrak, Ombredane eta Gloning tartean, eleanitzdunen hizkuntza bakoitzari zehazki, bereiztutako guneak dagozkiela diote. Beste batzuren ustetan, Segalowitz tartean delarik, harrigarria litzateke elebitasunak ez eraginik izatea burmuin antolaketan. Lecours, Branchereau eta Joanettek, hizkuntzaren burmuin adierazpena elebakarretan ez dela eleanitzdunetan denaren berdina diote. Lebrunen ustetan, elebidun baten bi hizkuntzak baliteke ez zirkuito neuronal berdin berdinak zuzentzea; are gehiago, baliteke modu desberdinean lateralizatuak egotea.

Elebidunek, bi hizkuntza dituzte beraienpean. Batean edo bestean hitzegin dezakete eta edozein momentuan biak ulertu. Elkarraldatu eta nahastu ditzakete egitura linguistikoa mailan (fonetikoa, fonologikoa, morfologikoa, sintaktikoa, lexikoa, semantikoa). Honek, uste asko sorrarazi ditu. Haue-



tako bati jarraituaz, eleanitzdun baten hizkuntza desberdinak, hizkuntzaren alde bereko leku anatomiko desberdinetan errepresentatzen dira. Beste ikuspuntu bat da elebidunaren bi hizkuntzek hemisferio dominatzailearen partzialki desberdinak diren areatan errepresentatzen direla, gainezarpen maila batekin.

Baina dudarik gabe, eztabaidatuena izan den arazoa, oinarrizko lateralizazio bereizgarriaren hipotesiaren birformulazioena da, non elebidunen hizkuntzaren errepresentazio edo/eta prozesamenduan partehartze handiagoa du dominatzailea ez den hemisferioak.

Eskuineko hemisferioak duen partehartzea, ez dago batere argi. Ikuspuntu klasikoa jarraituaz, eskumatien eskuin hemisferioak, ez du ahalmen linguistikorik. Bestelako eritzi bat da eskuineko hemisferioaren ahalmena, ezkerrekoarenaren berdina dela birtualki, baina ezkerreko hemisferio funtzionalak inhibitzen duela, eta ezkerreko hemisferioa ezgaitua dagoenean bakarrik aktibatzen dela. Hau honela bada, legezkoa da orduan partehartze honen natura aztertzea. Hemendik abiatuta, gutxienik lau aukera bururatzen zaizkigu:

1- **Partehartze erredundagarriaren hipotesia** da lehenengoa, eta honen arauera, bi hemisferioak informazioa modu berean prozesatzen dute, nahiz eta ezkerreko hemisferioaren partehartzea kuantitatiboki handiagoa izan daitekeen. Eskuineko hemisferioaren prozesamendua orduan erredundantea litzateke.

2- Bigarren aukera bat izango litzateke **kuantitatiboki osagarria den partehartzearen hipotesia**, hemisferio bakoitzak estimulu berdinak modu berean prozesatzen dituela diona, baina ezkerreko hemisferioak partehartze handiagoa duelarik.

3- Beste bat, **kualitatiboki paraleloa den partehartzearen hipotesia** genuke, bertan, estimulu bera, hemisferio bakoitzak kuantitatiboki modu desberdinean prozesatzen duela diona.


4- Laugarren hipotesi bat izan daiteke, **kualitatiboki selektiboa den partehartzearena**. Hontan azaltzen denez, hemisferio bakoitza bere barruko ahalmen funtzionalen arauera estimulu konplexu baten alderdi desberdin baten prozesamenduan bereizten da.

Egoera oraindik ere konplexuagoa bilakatzen da, elebidunetan ematen den hizkuntzaren garun lateralizazioaren kasuan. Hasteko, ikertzaileak berak ez dira ados jartzen gertakariei buruz. Autore batzuren ustetan, bigarren hizkuntzaren prozesamenduan eskuineko hemisferioaren partehartzea, gehiagotu egiten da. Beste batzuk berriz, elebitasunak garun nagusitasunaren garapena indartu egiten duela diote. Beste batzuk aldiz, ez dute inolako desberdintasunik ikusten elebaker eta elebidunen artean, hizkuntzaren lateralizazioari dagokionez.

Hipotesi asko proposatu dira eskuineko hemisferioak elebidunen mintzairaren prozesamenduan duen partehartze mailari buruz; hala nola: **bigarren hizkuntza, eskuineko hemisferioan errepresentatzen da; bigarren hizkuntza, bilateralki errepresentatzen da; bigarren hizkuntza, nahiz eta nagusiki ezkerreko hemisferioan lateralizaturik egon, lehenengoa baina maila txikiago batetan dago; bi hizkuntzak gutxiago lateralizaturik daude; bi hizkuntzak berdina errepresentaturik daude ezkerreko hemisferioan; bi hizkuntzak lateralizatuagoak daude.**

Beste galdera bat ere litzateke ea errepresentazio modua berdina den elebidun guztientzat.

Alor honetan eginiko saiakera berri bakoitzak, gehiago mugatzen joan da populazio elebiduna, honako hipotesi hauek kontutan hartu beharrekoak direla frogatu direlarik: **adina-rena**, zeinen arauera, pubertaro ondoren ikasitako hizkuntza bat, gutxiago lateralizaturik dago; **estadioarena**, bigarren hizkuntza gradualki ezkerreko hemisferioan lateralizatzen doala nagusitzen doan neurrian diona; **berrikusitako estadioarena, elebitasun motarena**, zeinen arauera, elebidun koordinatuen hizkuntzen errepresentazioa, bereiztuta dago, eskuineko hemisferioa, elebidun, konposatuak baino gehiago erabiltzen dutelarik; kontextuaren arauerakoa, non azaltzen den, eskuineko hemisferioak partehartze handiagoa duela bigarren hizkuntzaren kontextuan, erderazkoan baino; **modalitatearena**, irakurketa eta idazketaren bidezko bigarren hizkuntzaren irakaskuntzak, ezkerreko hemisferioaren partehartzea bultzatzen du, aldiz entzumenaren bidez denean, eskuinekoarena indartzen du; **hizkuntzaren zehaztasuna-rena**, non hizkuntza baten ezaugarri jakin batzu, eskuineko hemisferioaren partehartzea indartu dezaketen eta **distantzi estrukturalarena**, oso egitura desberdina duten bi hizkuntza banatuago errepresentatzen direla diona, oso gertu daude bi





hizkuntzetan baino parte gehiago hartzen duelarik eskuineko hemisferioak.

Desberdindu beharrak dira, hizkuntzaren errepresentazioa eta honen erabilera. Evidentzi klinikoak agerrera duenez, eskumatiak direnengan, hizkuntzaren ia errepresentazio guztiak ezkerreko hemisferioan ematen da (%95ean gutxienik), eskuineko hemisferioak hizkuntzaren erabilera normalean parte hartzen duen bitartean dudarik gabe. Badiudi, elebakar eta elebidunen eskuineko hemisferioan desberdintasunik badagoela; hau, estrategien erabileran erdiratuko litzateke.

Beste galdera bat ere litzateke, nola errepresentatzen diren bi hizkuntza garun berdin batean. Honi buruz, gutxienik lau hipotesi kontsidera daitezke:

1- **Sistema hedatuaren hipotesia**, non hizkuntzak, errepresentazio mailan, desberdindu gabeak dauden. Biak bat izango balira bezela kontsidera daiteke.

2- **Binako sistemaren hipotesia**: hizkuntza bakoitzaren elementuak, banaturik gordetzen dira.

3- **Hiruparteko sistemaren hipotesia**: bi hizkuntzatan berdinak diren itemak, bientzako berdina den substrato neural bakar batean adierazten dira, eta bakoitzarentzat desberdinak direnak, banaturik.

4- **Azpimultzoaren hipotesia**: bi hizkuntzak modu

berean gordetzen dira sistema kognitibo bakar batean, nahiz eta hizkuntza bakoitzaren elementuak konexio sare banatu bat osatu, eta sistema handiago batean, azpisistema bat.

Orain arte esandako guztia ikusi daiteke hizkuntz patologian, eta zehatzago, afasiko elebiduni buruz martxan dagoen ikerketa batean, M. Paradis koordinatzailea delarik eta guk aztertzen dugularik euskara/gaztelania elebitasuna. Estatu mailan ere, gailego/gaztelania eta katalan/gaztelania elebitasunak ere ikertzen ari dira. Ikerketa hontatik atera daiteken ondorioetako bat, honako hau izan daiteke: formulatu beharreko beste galdera bat da ea elebidun baten bi hizkuntzen egituren antzekotasunak baduen eraginik bere garun errepresentazioan. Batzuren ustez (Albert eta Obler, 1978), egituraz antzeko diren bi hizkuntzen arteko gertutasunak, interferentziak gainditzeko ahalegin gehiago suposa dezake, egitura neural desberdinduagoetara zuzenduaz. Baina alderantzizkoa ere esan daiteke; hots: zenbat eta antzekotasun gutxiago egon bi hizkuntzen artean, orduan eta bereiztuago errepresentatuko lirateke. Hirugarren posibilitate bat ere balego; hau da, egiturarteko distantzia ez dela bereizgarria. Aurrekoari lotuz, euskera/gaztelania eta katalan/gaztelania dituzten afasiko elebidunen arteko berreskurapenaren konparazio sistematikoaren bidez ikusi ahal izango da ea egitura distantziak baduen nolabaiteko eraginik edo ez, eta baldin badu, nolakoa den. Maila orokorrago batean, afasikoekin egindako ikerketek zenbait datu baliagarri eman ditzakete orain arte adierazitako guzti honi buru.

Lore Erriondo Korostola.



Euskal Irakaskuntzan, Murgiltze Sistema Babes Juridiko-Politikorik gabe

Egun Euskal Herrian dirauen hizkuntz gatazkaren aurrean, Irakaskuntzan murgiltze sistemaren aldeko jarrera praktikoak hartzeak, etekin garbiak lekarzke Euskalduntze prozesorako; batipat, erakunde ofizialetatik jasotzen duen babes juridiko-politikorik eza kontu izanik.

Herrien arteko harreman juridiko-politikoak menpekotasunez bideratzen direnean, menpekotasuna giza harreman atal guztietan gorpuzten da.

Estatu espainola eta Euskal Herriaren arteko menpekotasun adierazlerik agerikoenetakoa konstituzioak bere 3. Art. Euskarari ezartzen diona:

- "Todos los españoles tienen la OBLIGACION de conocer el castellano"

- "... las demás lenguas..."

Gaztelarak aipamen osoa izanik Euskara "beste" hizkuntza da.

Aipaturiko ezarketa ondorengo araukotze politiko osoan mantentzen da, irakaskintzarako ordenamendua barne.

Bai Araba, Bizkaia eta Gipuzkorako autonomi estatutoak bai Nafarroakoak, mantendu egiten dute abiapuntuko menpekotasuna.

- "... el Euskara tendrá como el Castellano caracter de lengua oficial y




todos los habitantes tendrán el DERECHO de usarla".

Erabiltzeko eskubide hau Nafarroako kasoan zonalde batzutura bakarrik mugatuko da.

Konstituzio espainarrak gaztelarentzako ezartzen duen ezagutzerako DERRIGORTASUNA, Komunitate Autonomoetako estatutoek berriz, Euskara ezagutzeko BORONDATEA soilik babesten dute.

Gaztelera-Euskara hizkuntz gatazka honetan menpekotasunezko tratamendu juridiko-politikoak, euskararekiko ordenamendu osoan mantentzen da; hala nola "Euskararen erabilera araukatzeko oinarrizko legean", "Vascuencearen legean" eta ondorioz sorturiko agindu eta dekretuetan.

Aipaturiko ordenamenduaren ondorio, 158/1983 Dekretuak Euskararen irakaskintzarako arauturiko (A, B, D)



ereduek ikaslegoaren abiapuntu Soziolinguistikoa eta gurasoen borondatea dute oinarritzat eta ez erabilera bermatzeko hadineko ezagutza. Hizkuntza bat, erabiltzeko da, eta erabilera bermatzen ez duen irakaskuntzak ez du inongo zentzurik, hizkuntza "hila" bait litzateke. (A, B, D) ereduetan gazte-arentzako gutxieneko ezagutza, eta erabilera bermatzen den bitartean, Euskararentzat menpekotasunezko tratamendua eskeintzen da, erabilera bermatuko lukeen hadineko ezagutza ukatuaz (ikus "A" eredia erregulatzeko 1985.eko dekretua edo "B" ereduko baldintzak erregulatzeko ekainaren 4. ko agindua).

Giro erdaldundutako haurrentzat A, B ereduak eta euskaldunentzat D eredia bereizteak, hizkuntzengatiko

diskriminazioa bultzatzen du eskolan, eta ez du Euskalduntze prozesua bideratzen.

Murgiltze prozesuak berriz, egoera Soziolinguistiko desberdinetako haurrek (zein giro erdaldunekoak, zein euskaldunekoak), gutxieneko ezagutza maila berdina batetara helaraztea du helburutzat, erabilera izanik aldi berean jomuga eta bitarteko.

Murgiltze prozesuak irakaskuntza eta euskararen arteko erabateko identifikazioa eskatzen du; Euskara da erreferentzi bakarra eta ez bilinguismoa.

Murgiltze prozesuak eskatzen dituen baldintza praktikoak (irakasle Euskalduna, haur kopuru egokia, ikasketak ordua, ingurugiroa, motibazio, e.a.)

modu egoki batez administrazio publikotik bideratzeko ez du araudiak babes nahikorik eskeintzen; zenbait kasu eta tokitan iharduera furtiboa, eta gehienetan borondatezkoa izanik.

Euskara, hizkuntza ofiziala izatetik, Nazio hizkuntzatzat hartua izatera dagoen aldea; eredu ofizialak (A, B, D) euskarari ematen dioten tratamendua eta murgiltze prozesuak ematen dionaren arteko alde bera da.

PRAKTIKA ELEBAKARRA BABESTUKO DUEN MARKO JURIDIKO BERRI BATEK SOILIK ekar lekieke babes juridikoa Murgiltze sistemari.

Antton Izagirre



Hizkuntz - Inmersio Egitarauak Katalunian

1.- SORRERA

Gaur egun "hizkuntz inmersioa" deritzogun katalanerazko irakaskuntzaren lehenengo esperientziak gaztelaniazko hiztunengan, 1980ko inguruan eman ziren.

Une haietan, katalan hizkuntzaz kezkatuak zeuden irakasleek, zalantza handiak bait zituzten zeuden ereduak katalantzeko oso egokiak zirenentz.

* Irakaskuntza elebiduna, bi hizkuntzen erabilpen paraleloa gelan.

* Katalaneraren irakaskuntz-progresioa, astean ordu batzutatik abiatuz.

Helburu gisa, haurren ahozko eta idatzizko gaitasuna katalaneraz jartzen bazen, egiaztatzen zena zera zen, ez zela aski. Bestalde, elebidun-irakaskuntzaren ereduak zalantzan ipintzen ziren zenbait arrazoingatik, hauen artean, zailtasun didaktikoengatik.

Guraso eta irakasle taldeak izan ziren "katalanerazko" irakaskuntzaren aintzindariak, gehiengo gaztelarazko hiztunen herrietan. Inmersio-egitarauaz hitzegiten ez zen une haietan, norbere hizkuntza berreskuratzeko asmoz eta ilusioz beteriko ekintzetan oinarriturikoak izan ziren ekintzok, frankismo diktaduraz hain bait zeuden kaltetuak.

Eta beste herriedetako berri jakinik, Kanadako bati-pat, eta ondorio onekoak zirela gainera, animatu zen zenbait irakasle inmersio-egitaraua deritzonari hasiera ematera.

Murgilketak (Inmersioak)
ikastetxearen
hizkuntz-normalizazio
prozesoa azkartzen du

Ekitaldi hauei, instituzional-bultzadak jarraitu zion, 1983ko Apirileko HIZKUNTZ-NORMALIZAZIO LEGEAN oinarritu bait ziren katalanerazko irakaskuntz ereduak garatuko zituzten ondorengo erabaki eta arautegiak, hauen artean, inmersio-egitaraua.

2.- INMERSIO-EGITARAUEN GARAPEN OSORAKO OINARRIZKO BALDINTZAK.

Ondorioak ikusirik, hizkuntz-inmersio egitaraua oso egokitzat jo daiteke bigarren hizkuntzaren ikasketarako. Halere, bada zenbait baldintza kontutan hartu beharrekoa, bestela ezinezkoa gerta bait daiteke. Hala nola, hiru puntu nagusi aipa daitezke:

- a) * Ikastetxearen jarrera edo predisposizioa.
- b) * Gurasoen kontzientziaketa
- d) * Irakaslegoaren prestakuntza

a) Sarritan ez da inolako akordiorik egoten ikastetxetako klaustroetako partaideen artean, ikastetxea katalantzeko eredu pedagogikoa hautatzeko garaian. Inmersio-egitarauak hasteko tenorean dauden aurkako eritziak, hizkuntzarekiko erabaki ideologikoetatik datoz, eta besteetan aldiz, jarrera pertsonaletatik, hau da, horrek suposatzen duen klase aldaketaren beldur direlako.

Esperientziak erakutsi digunez, zenbait ikastetxetan klaustroaren zati bat aurka egonik ere inmersio egitarauari hasiera eman zaie, bestela oso luze joko bait luke adostasun osora iritxi arte. Halaz ere, beharrezkoa da irakaslego zati handi batek proiektua onartzea, beronek dakartzan konprometea.



zuez, hots, ikastaro batzutan ikastetxetik beretik ez mogitzea, hasierako gelen (4 urte eskolaurrean) ardura eta erresponstasibilitatea irakasle esperientzidunengan uztea, ikastetxearen eta gurasoekiko harremanetan egitarauak defendatzea, aurreratzeko beharrek diren laguntzak esijitzea administrazioari, etabar, etabar.

b) Gurasoekiko lana izan daiteke agian, lanik garrantzitsuena, bai haurrengan izan dezakeen eraginagatik, eta baita, egitarauen arrakastarako ezinbestekoa den onarpen sozialagatik ere.

Bigarren hizkuntza erabiltzeak ez ditu atzeratzen inolaz ere eskola-ikasketak

Gurasoekiko lanak ekinbide desberdinak izan ditzake:

* Matrikulazio kanpainetan, haurtzandegietan, kultur ekintzetan, etabarretan informazio banaketa eta zabalketa, hots, zernolakoak diren inmersio egitarauak, nola garatzen diren, e.a. Informazio-mahiak, txosten banaketa, bideo-emanaldiak, e.a., antola daitezke.

* Ikastetxean bertan, gurasoen partaidetza eskola-ekintzetan partaide bilakatuz, jaialdi antolaketan, liburutegietan lagunduz, materiale-sortzen, tailerretan parte-hartuz...

* Inmersio egitarauan hasi behar duten haurren gurasoen zaintze berezia, haur-guraso-irakasleen artean benetazko komunikazioa sor dadin.

d) Irakaslearen formazioari dagokionez, inmersio egitarauan ihardun behar duten geletako arduradunek katalanerraren domeinu osoaren jabe izan behar dute batetik, eta klaseak eman behar dituen mailari dagokion ekintza pedagogikoaren ezagutza, bestetik. Baldintzok irakasle-haurren arteko komunikazioa izugarri lagunduko dute, irakasleak erabiliko duen hizkuntza ikasteko motibazioa sortzeko beharrezkoak bait dira.

Irakaslegoaren etengabeko formazioak egitarauen aplikazioan lagunduko du, komunikazioa hobetuko duten bide eta estrategia berriak aurkituz, eta ondorioz, bigarren hizkuntzaren ikasketa,

3.- EGUNGO EGOERA ETA BALORAZIOAK

Inmersio egitarauen ezarpena lehenengo esperientziez gero, progresiboki eman da. Une hauetan gutxigora behar xehetasunek aipatzen dutenez, 700en bat ikastetxek hasirik dituzte jadanik inmersiozko egitarauak, eskola publikoetako %40a suposatzen duelarik.

Beronen hedaketa, laguntza instituzionalek egindako

Hizkuntz Normalizazioaren egitasmo trinkoei esker, alde batetik eta, aurreratzen joan diren promozioek lorturiko emaitza onei esker izan da, batipat.

Emaitza hauetatik eta, egitarauen aplikaziotik orohar, atera daitezkeen puntuak:

* Bigarren hizkuntzaren jabetza ulermenean eta adierazpenean, beroni esker, ikaslea uste baino lehen komunika bait daiteke hizkuntz honetan.

* Heziketa garaian, bigarren hizkuntza erabiltzeak ez ditu atzeratzen inolaz ere, eskola-ikasketak.

* Egitarau hauek sartzeak, ikastetxe horretarako hizkuntz-normalizazio prozesua azkartzen du.

* Egitarauen garapenak berrikuntza pedagogikoa indartzen duen sakontzea dakar.

Arestian aipaturiko puntuok positiboki baloratu arren, esan behar da, oraindik zenbait kasu erabakitzeke daudela, zeinak, zenbaitetan egitarau hauen jarraipena zalantzan ipintzen bait du. Adib.:

* Ofizialki inmersio egitarauan barnean sartzen dira, eskolaurreko 4 urtetarik OHOk 2.ra arte, eta gainontzekoak babes legalik gabe egonik, ez da garantizatzen katalanerrazko jarraipena goi-mailetan.

* Zenbait ikastetxetan irakaslegoaren ez jakintasuna nabaria da katalanerraz irakastea ezinezkoa zaielarik.

Azkenik, eta bukatzeko, alor soziolinguistikoan sartuko lirakekeen oharrak aipaturiko genituzke, eskoletan irakasten den katalanerrazko irakaskuntzarekin batera, ez bada ematen hizkuntz honen erabilpena ziurtatu eta komunikazioko hizkuntza bilakatuko duen baldintza batzu, alferrikakoak izango dira eskoletan eginiko ahalegin guztiak.

Zazpirehun bat ikastetxe publikok hasirik dituzte jadanik inmersiozko egitarauak

Katalanera jakitea "erabilgarri" bilaka daiteke baina ez "beharrezkoa". Horrela bizi dugu eguneroko errealitatea, non BBBko eta unibertsitateko ikasleek kalifikapen onak lortzen dituzten katalanez idatziriko azterketan baina, ez dute erabiltzen lagunartean eguneroko elkarrizketetan.

María SOLIBA i GARRIGA.

Kalalunyak Generalitat-eko

Katalanerrazko Irakaskuntza Saileko,

Hizkuntz-Inmersio-Egitarauen (S.E.D.E.C.)

pedagogi-aholkularia.



Heziketa Berezia, Euskaraz zergatik ez?

“Bai HEZKUNTZA BEREZIKO EGITAMU NAZIONALAK eta bai MINUSBALIDOEN INTEGRAZIORAKO LEGEAK, *INTEGRAZIO SOZIALA* deritzan printzipioa onartzen dute eta bertan oinarritzen dira”. (Plan de Educación Especial para el País Vasco. 14. or. Eusko Jaurlaritza. 1983. Guk azpimarraturik).

Inon bada giza taldean “integrazteko” bide emankorra, hori hizkuntza da; ezer bada euskal gizarteko partaide izateko tresna eraginkorra, hori euskara da.

Ez da, ordea, ume *adimenurrikoei* edota Heziketa Berezikoei eskeintzen zaiena. Haurrak, erdaldunak direnean, “ikasi ahal izateko, ama-hizkuntza **finkatu eta garatu** behar dute” diote; euskaldunak direnean berriz, “integrazteko, zeozer ikasi ahal izateko, **gaztelera BEHAR** dute” ihardetsi digute. Belarriak eta entzumena dituenak, honelako erizpide “pedagogikoa” entzun behar!

Antza *adimenurrikoen* artean ere euskaldunak “diferenteak” dira; izan ere, elebiduntzeko, bigarren hizkuntza ikasteko gauza bait dira. Ez ostera erdaldun gajoeke euren ama-hizkuntza bakarra menperatzeko kristorena eta bost egin behar dutenak.

Zenbat “mongolito” (Down-en Sindromea) horietakoak halabeharrez elebidundu behar izan dira, euskaldunak zirelako? Zenbat itsu, neurotiko, psikotiko, adimen moteleko, ... zenbat haur euskaldunek *ikasi BEHAR* izan du bigarren hizkuntza *inolako plangintza berezirik gabe*?

Euskaldunak “diferenteak” ote?; zergatik bada, euskaldunek ezik besteek ezin dezakete bigarren hizkuntza ikas?

Hona hemen zergatia, neuro-psikiatrank, terapeutak, logopedak, psikologoak, pedagogoak, maisu-maistrak, e.a. gehien bat erdaldunak direlako. Gaztelera “normalen” hizkuntza delako, ingelesa “zientzilariena” den bezala.

Areago joku dugu oraindik; beraien argumentazio bera jarraituaz, euskaldun elebakarrak, euskaraz ikasi beharko lukete hau bait da beraien ama-hizkuntza, hau finkatu eta garatu behar dutelarik, nahiz eta gorago aipatu bezala, gaztelera behar izan. Baina zer gertatzen da adibidez hizkuntz eragozpenak dituztenekin? Hauek dagoeneko egoera larrian daude baina nola edo hala badira laguntzeko modu batzuk, hauek **erdaldunak** badira **noski** edota erdara nahiko osoa mantentzen dutenentzat, baina bestelakoa da nahiz eta *beharrez elebidunak* izan, erdara galdu dutenen egoera. Hau esaterakoan, ez gara zientzia fikzioaz ari ez eta zentzugabekeriaz, ikusi bait ditugu egoera hau jasan beharrean daudenak, eta zehazki afasikoez ari gara. Euskara/gaztelania, elebitasuna duten afasikoak, gaztelanian aztarnarik berreskuratzen badute, erdaraz ekiten zaio berreskurapenari (bestelakoa da berreskurapen honen nolakoa instituzio mailan, baina ez da hau oraintxe bertan gure gaia). Erdaraz ez badu aztarnik ere berreskuratu, ez da inor arduratzen euskaraz ezer berreskuratzen hasi den edo ez (familia ezik); era berean, erdaraz ekiten zaio berreskurapenari pentsatu ere egin gabe agian euskaraz bere hizkuntza gaitasuna errekuperatzen hasi daitekeenik. Honekin gertatu daitekeena eta gertatu izan dena, inolako hizkuntzarik gabe gelditu izana da.


Hau oso **larria** da. Hizkuntza baten edo bestearen balorazio soziolinguistiko/politiko edo dena dela alde batetara utzirik, nahiz eta probabilitate txikia izan ere, nola utzi daiteke norbait, hizkuntza berreskuratzeko aukerarik gabe?, beste hizkuntza batean **eskandalosoa** litzatekeena, euskara tartean sartzen denean, ez da kontutan hartu ere egiten.

Momentuz utz ditzagun holako eztabaidak eta gure arazoari ahalik eta hestuen hel diezaiogun; zein umek ezin dezake bigarren hizkuntza ikas? Zeintzu dira bigarren hizkuntza ikastea ezinezkoa egiten duten faktoreak? Zeintzu dira erdaldunentzako bakarrik baliagarriak diren faktore hauek? (zeren eta behin eta berriz esan bezala, euskaldunak gai dira). Agian, honako hau esanaz bukatu beharko genuke: euskaldun izateak garantizatzen duela alegia elebidun izan ahal izatea, desberdintasun egoera guztiak gainditurik. Orduan, guztientzako onuragarria litzateke **euskaldun** izatea. *Ala ez?*

Xabier Isasi

Lore Erriondo

Plan on bat baduzu gogoan kontutan izan Kutxa.



Zure neurriko Plana aurki dezazun, zein edo zeintzu diren zuri hobekien datozkizunak aukeratu besterik ez duzu.

Etorkizunean, gauzak zuk aurrikusi bezala gerta daitezzen.

Zuk nahi duzun bezala.

PENTSIO-PLANA

Errentagarria, zergaringarria eta zure neurrikoa. Etorkizuna duen dirua.

AURREZKI-PLAN ASEGURATUA

Oso interesgarria eta zergaringarria. Seguru hazten den dirua.

AURREZKI-PLANA

Interes handia aurrezki txikiarentzat. Piskanaka gehiagotzen den dirua da.

**AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA**



**CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL**



Erdaldunak Murgilean Euskalduntzen

Koordinaturik lana egiten duten lau ikastetxeetako zuzendariekin elkarrizketa hau izan dugu. Helburua, giro erdaldunetan batez ere, ikasleak nola euskalduntzen dituzteneko esperientziak kaleratzea.

Lizarrako ikastolatik Koldo, Iruñeako Paz Ziganda ikastolatik Jose Luis, Gasteizko Toki-Eder eskolatik Peio eta Tolosako Laskurain ikastolatik Emeterio etorri zaizkigu.

Isilik: Giro erdaldunetan posible al da ikasle erdaldunak euskalduntzea?

- Esperientziak baiezkoa esaten digu. Hemen gaudenok lekuko gara, baldintza oso desberdinetakoak izanik, posible dela egoki euskalduntzea.

- Nola sortu zen koordinaketa?

- Erdaldunak euskalduntzeko B eredia sartu nahian zenbiltzen eta guk bide hori desegokia ikusten genuenez, erresistentzia gisa alkartu eta gurea mantentzeko asmotan, Toki-Eder, Lizarra eta Paz-Ziganda bat egin ginen.

- Giro erdaldunetako eskualdetan B eredia ikasleak euskalduntzeko desegokia ikusten al duzue?

- Guk euskalduntze prozesoz hitzegiten dugu. Eredutaz hitzegin behar badugu, D eredia oinarri minimo bezala hartzen dugu. Hortik aparte, motibazioa eta zenbait indar elkartu beharra ikasten dugu: irakasleak, ikasle nagusiak, gurasoak etabar.

- Ikasleek zein euskalduntze prozesoa daramate?

- Haseratik euskararekiko lotura afektiboa lortu behar da. Ez bakarrik kuantitatiboa, kualitatiboa ere garrantzitsua da. Sarreratik murgiltzea (immersioa) giro zoriontsu batean izan dadin prestatzen dugu.





Irakaslea beti euskara hutsean zuzentzen da. Erdara sartzeak, pixka bat bada ere, inkoherentzia sortzen du ikasleengan. Euskara eredu bezala irakaslearen figuran ongi zaindu behar da. Identifikazioa sortzeko bide onena gure ustez.

- Ez al da zenbait egoera gogor gertatzen?

- Lehenengo egunetan, zenbait egoeratan, lasaitzeko, geroko irakaslea izango ez duen norbait, laguntzaile bezala, sar daiteke eta arazoa den umea aparte hartuz, bere hizkuntzan zuzenduko zaio. Lagungarria gertatzen da eta ikasturte osorako irakaslearekiko koherentzia mantentzen laguntzen du.

- Zeintzu dira umeek daramatzaten ikasketa pausoak?

- Hiru urterekin irakasleekin euskarez hitzegiteko ohitura hartzen dute.

Lau urterekin beren lagunekin gela barruan espontaneoki zuzentzea lortzen da.

Bost urterekin jolasaldian ere euskaraz hitzegiten ikusten zaie. Hitzegiteko ohitura handia hartzen dute.

Hasera zikloan zenbait motibazio eta ekintza prestatuz euskara etxera, enparantzara eta kalera eramatera bideratzen dugu. Bestalde, hasera ziklokoek eskolaurrekoa bultzatzen dute. Mekanismo batzuren bidez goikoek beheko mailakoena indartzen dute. Euskararekiko lotura handia sortzen da, giroa azken batez.

- Hiru urterekin eskolarizatuta, nola da posible hau lortzea?

- Posible dela hemen gaudenok ziurta dezakegu. Dena den, zenbait baldintza hobetu ezkerro ondorioak ere hobea-goak izango direla pentsatzen dugu.

Ahal izanez gero bi urtekoak eskolarizatzen hasiko ginateke. Haseran, adaptatzeko denbora bat behar da. Dauden esperientziak ikusirik, bi urtekoek ikasturtearen bukaerarako irakaslearen aginduak ulertzea lortzen dute, umeen artean erdaraz komunikatzen badira ere.

Deredua oinarri minimo bezala hartzen dugu

Horrela, euskalduntzeko prozesoa aurreratu eta erreztuko genukelakoan gaude.

- Euskal Herriko zenbait inguru euskaldunagotan gertatzen ez den bezala, inguru erdaldunetan, ikasleek ikastetxetik kanpo euskara erabil dezaketetik zaila egiten zaigu ulertzea.

- Gizarteak eragina handia du, baina zenbait baldintza



betetzen badira eta lana ongi planifikatzen bada, ikasleen egoera alda daitekela ikusten dugu.

Tolosako Laskurain ikastolaren kaso oso adierazgarria da, lau urtetako lan esperimentazioan euskararen erabilpena izugarri aurreratu delarik.

“Siadeco”k jolas ordutan egindako azterketan, Goi ziklokoen %42ko erabilpena bazen eta txikiagoena %70ekoa, hiru urte geroago emandako erantzunak hauek izan dira: Goi zikloan %86koa eta txikiagoetan %100a esan genezake.

- Aipatzen dituzuen baldintzen artean gelako haur kopuruak zer esanik ba al du?

- Guk 25-30 haur kopuruekin posibilitatu dugu. Gelako 15 haur izanik askoz ere errezago eta egokiagoa izango dela ziur gaude.


- Zeintzu dira ba, baldintza minimoak?

- Planifikazio eta zentro proiektua behar da guztiau aurrera eramateko. Proiektuan sinistea da garrantzitsuena.

Irakasleak: Kontzientzia handia behar du. Motibazio arloan konpremezua eskatzen dio.

Gurasoak: Inplikatu behar dira, beraiek ez dira bere kasa sartzen. Familiak garrantzi handia du, gure lana indartu egiten baitu. Anai-arreben komunikazioak pisu handia hartzen du.

Ikasle nagusiek: ekintzen dinamizatzailerak izanik, ohitura berriak sortzen dituzte. Txikientzat eredu bihurtzen dira eta beraientzat errefortzantea da.



Baina kontuz, hitzeginez bakarrik ez dira ohiturak sortzen, ekinen-ekinez eragiten dira.

Erdara sartzeak pixka bat bada ere, inkoherentzia sortzen du ikasleengan

- Noiz eta nola, zein momentuan lortzen da euskalduntzea?

- Ez dakigu. Tartean imitazio prozesuak ematen dira. Planifikatuz eta jarraipena edukiz lortzen da. Ez dute balio bolada bateko kanpainak soilik, konstantzia eta jarraipena beharrezkoak dira. Guk kanpainak antolatzen ditugu:

Hirian zehar euskaraz: Batzutan aurretik antolaturik, bestetan antolatu gabe, euskararen erabilpenerako esparruak irabazten goazelarik.

Jolastokia euskal giroaz: Ikasle nagusiak txikientzako ekintzak prestatuz...

Bazkaltzeko ordua zainduz

Ekintza estraeskolarrak antolatuz. Eskolatik bideratuak

badira, garrantzi handia dute. Euskaraz ezin badira, ez ditugu antolatzen.

Guzti honetaz Lizarra eta Paz Ziganda ikastoletako artikuluetan garbiago adierazten da.

- Lan honek irakaslegoari ez al dio nilitantzia handia eskatzen?

- Irakaslegoaren inplikazioa behar da. Proiektuan sinisten bada, neurriak hartzen dira eta ez da hainbesteko militantzia behar.

Toki-Ederrek, eskola transferitua bihurtu denetik, lanordua murriztu egin du. Hala ere, zailtasun handiagoak izanik, sinisten bada, posible dela prozesoa aurrera ateratzea ziur gaude. Mobilitatea, etorri daiteken jendearengatik arazoa suertatzen da. Elkarrekin prestatutako plangintza errezagoa da aurrera ateratzea.

Irakasle batzuk egoera azertu eta erremedioa jartzen hasten badira, besteak emaitzak ikustean, prozesoa sartzen joan dira. Azkenean denon inplikazioa, denon artean egin beharrezko lana bezala hartzen da.

Espektatibak sortzen badira, egin eta ondorioak ikusi, lorpenek asko animatu eta laguntzen dute. Haseran kosta egiten da, baina behin martxan jarri ezker indarrak bidertzai leak bihurtzen dira.

- Zenbait informazio Lizarra eta Paz Ziganda ikastetxeetako artikuluetan agertzen denez, zer aipatuko zenukete esan gabe dagoena eta bere garrantziarengatik adieraziko zenuketena?

- Euskalduntzen prozesoa ez dela gardena izaten; kontradizioz beteta dago baina jardunean lortu egiten da.

Bestalde, kalitate erdua erakutsi egin behar da. Eskolako jendea mugitzen bada, herrian presentzia eta prestijioa lortzen da.

Lizarrako kaso oso adierazgarria da. Gurasoek eskatuta, denok ikasiko dituzten esaldiak etxera bidaltzen zaizkie. Adibidez: Aizu! bildu zure jostailuak!


Azkeneko ikasturtean, Lizarra hain egoera erdaldunekoa izanik, hiru urtetako haurren artean ikastolarako matrikula %57koa izan da.

Hain lan interesgarria denez, dexente luza gintezke. Zaila da arlo honetako lau esperientzidun mahai batetan batera biltzea. Beren lanean izandako bizitzak eta gertakizunak argitaratzea interesgarria jo dugu, euskalduntze mundu ilunean argi izpi bezala agertzen zaizkigu eta.

Eginkizun hau bete nahiean gabiltzanok bihotzez eskertzen ditugu honelako ereduak.

Isilik





Erdalerria euskalduntzeko eskola

Lizarra Ikastola

Nafarroako herribeherako mugan, Lizarra Ikastola 1970 urtean sortu zenetik, matrikularen aldetik zein pedagogiaren aldetik, aurrerapen izugarria eman du.

Hasierako 24 haurretatik gaur egungo 585 haurretara pasa gara, euskalduntze prozesuari bultzada geldiezina emanez. Ikastolan, kaleetan eta etxeetan-Lizarrako haurrek euskaraz amets, bizi eta jolas egiten dute.

Nahiz eta lehendabiziko urteetan arazo eta larrialdi ugari sufritu behar, garai hartako gizarteak eskaintzen zizkigun baldintzak guztiz kontrakoak zirelako, geroari begira, euskararen etorkizuna ziurtatuta dagoela Lizarran, ez du inork zalantzan jartzen. Kolektibo motibatu baten lanaren eraginez, proiektu sendo bat aurrera doa.

EUSKALDUNTZERAKO ZENBAIT PUNTU

Euskalduntze prozesua bideratzeko, hona hemen guk jarritako helburu nagusiak:

- 1-Teorizazio mailan, euskalduntzeari buruz adostasun bat lortzea.
- 2-Proiektu inguruan irakaslego egonkor, motibatu eta motibatzailea biltzea.
- 3-Gurasoak proiektuan inplikatzeari buru-belarri.
- 4-Baliabideak eta estrategiak aukeratzea, sailkatzea eta ebaluatzea.
- 5-Irakaslego eta gurasoengan espektatiba onak eta baikorrak sortaraztea.

IRAKASLEGO OSOA MURGILKETAREN ALDE

Ikasleengan euskaraz hitzegiteko ohitura eta bapatekotasuna lortu nahirik, murgilketaren bidea hautatu genuen. Erdararen aldeko igerleen aholkuak

entzun gabe, "murgilketaren bidez haurren nortasuna zapaltzen dela edota, haurren espontaneitatea, kreatibitatea eta askatasuna mugatzen direla", gure euskalduntze prozesuari hasiera eman genion.

Haurrak euskara hutsean bizi izan zitezten, euskara bizitzara eramanez, haurren jolasak eta etxeak inplikatu.

Euskalduntzeari buruz irakaslego osoaren adostasunak proiektua aurreratu, arindu eta erraztu zuen.

Irakaslego egonkor motibatu eta motibatzailea biltzea

MOTIBAZIO INDARRA

Motibazio indarra erabiliz, ikasleen heziketa pobretu ordez, aberastu eta zoriondu genuen. Ikasto-

laren inguruan landutako giro alai eta zorionsu bati esker, ume guztiengan euskararen aurrean erantzun positibo, iraukor eta bapatekoak sortzen hasi ginen.

Gure heziketa sisteman errepresioa edo zigor bideak zentzurik ez zutenek, umeen ilusioa, fantasia, ametsak, emozioa eta jolasen mundu sinbolikoa erabiliz, euskararekiko portaerak sortu, erreforzatu eta behin betirako finkatu genituen.

Euskalduntzeari emandako indarrak, gure heziketa osoa baldintzatu zuen, "jo ta ke" eredu sortuz.

LIZARRA IKASTOLAREN DEFINIZIOA IKASTOLA EUSKARAZ BIZITZEA- REN ESPERIENTZIA GOIZTIA- RRAREN ALDEKOA

Euskararekin identifikazioa posible izan dadin, murgilketa goiztiarra bultzatzen dugu, ikastolako ekintza eta arlo guztietan euskara huts eta bizia erabiliz.

IKASTOLA: LIZARTAR GUZTIEN ESKOLA

Gizarte honetan banatzen gaituzten taldeen iritzi eta azpijokuak gaindituz, Lizarra Ikastola bere proiektuaren inguruan, euskara eta euskal kulturaren aldeko Lizartar guztiak biltzen saiatu da.

Gurasoak proiektuan buru-belarri inplikatzeari

Politika honen ondorioz, ideologia ezberdinetako gurasoek beren semeentzat euskalduntze proiektua aukeratu dute.

Euskal Kultura geureganatuz, euskarak batu gaitu.

IKASTOLA: KOLEKTIBO BATEN LANA

Azken urte hauetan ikastolaren inguruan sortu den heziketa proiektua kolektibo baten lanaren ondorioa izan da.

* GURASOEK, beren semeen heziketan parte aktiboa hartuz, ikastolaren gogo eta helburuak biziki maite izan dituztenez, etxeetatik eskolara alternatiba, ekintza eta plan guztiak bultzatu dituzte.

* IRAKASLEEn ilusioei esker, euskalduntze proiektu hau sortu, bideratu, finkatu eta sendotu da. Irakasle langile, ilusioz beterik, sakonki motibatuta eta batera motibatzaile batek, liburuetan agertzen den euskara mutuari bizitza eta arima eman dizkio.

* Euskararekin lotzen dituen harreman afektiboa, tentsio klima edo antsietate giroan lortua izan ez denez, gure "ikasleei" euskara barne barnetik sortzen zaie. Euskara haiena izanik biziki maite dute.

IKASTOLA: MOTIBAZIO ESKOLA

Haurren ilusio eta mundu sinbolikoak erabiliz, jolasak eta ipuinak landuz, haur lizartarrek bizi izan duten erdal giroan euskara txertatzeko asmoz,

hamaika teknika motibagarri asmatu genuen. Urtez urte egindako euskararen aldeko kanpainen ondorioz euskara bizitzara eramana izan da.

IKASTOLA: GELAZ KANPOKO ESKOLA

Eskola ordutegiak eskaintzen dizkigun bost ordu horiek erdaldunen euskalduntze prozesua aurrera joan dadin, nahikoak ez direnez, gure euskalduntze estrategiak kaleratu beharrezkoak aurkitu gara.

Urtean zehar ekintza motibagarrien katea prestatuz, umeen euskal munduarekiko identifikazioa lortu dugu. Herrian ospatzen diren jaldiak, mendi-irteerak, herriko kaleetan egindako antzerkiak, udako kanpaldiak, jolasak eta oporretako joko bideratuak motibazioa indartzeko estrategiarik hoberenak izan dira.

Motibazioa kaleko ekintzetara hedatu dugun neurrian, euskaraz hitzegiteko espontaneitatea eta ohitura indartu ditugu.

Irakasleek eta gurasoek herria euskaldunduz, Ikastolaren heziketa eta euskara bera aberasten dituzte.

ETORKIZUNAREN AURREAN BAIKORRAK GARA

Baldintza batzuetan gero, euskalduntze prozesua posible delako, euskararen etorkizunari guztiz baiko-

rrak garela, begi bistakoa da.

Lizarrako haurrek euskaraz bizi, amets eta jolastu egiten dute. Ikastolatik atera diren ikasle-ohiek gurekin harreman ezin hobekak dituzte, Lizarra hirian euskararen onarpena gero eta zabalagoa delarik.


Ilusio eta motibazioaren indarrak elkartzen gaitu. Ikasturte honetan Ikastola berriaren eraikuntzari hasiera eman diogu. Nahiz eta ekonomia arazoak izan, Euskal Herriko ikastoletatik eta euskaltzale guztiengandik laguntza jasoko dugulakoan, itzaropen handia dugu.

Lizarraren euskalduntzea martxan dagoenez, 2.000 euskaldunetara iristear gaude. Euskararen zabaltzearen alde lan egiten dutenei gure himnoaren bidez Lizarra Ikastolaren agurra eta bultzada luzatzen diegu:

EUSKARAK BATZEN GAITU
DENAK BAT EUSKARAZ
NAFARROK EUSKARAREN
KONKISTARA GOAZ.

Ezina badirudi
badirudi ere
ekinean ezina
egina liteke.
Lizarrako umeak
lekuko hor daude
euskaraz bizi dira
etxe eta kale.

*Lizarran, 1989ko Urriaren 25ean
Ikastolako Zuzendaria.*





Paz Ziganda ikastola eta haur erdaldunen euskalduntzea

Hizkuntza eta kultura euskaldunak bere ohitura, tradizio eta historiekin; bere kanta eta dantzak gure proiektuan elkar bat egiten dute. Ingelera irakas litekeen moduan Euskara irakasten den Zentru Eskolar bat izatera ez gara mugatzen.

Kontutan harturik gure ikasleetako % 90ak baino gehiagok ez duela etxean Euskara berea eta maitatua egin ahal izateko eredu euskaldunik, Ikastola saiatu egiten da bi direktziotan aritzen honako helburu hauek lortzeko asmoz:

— Beharrezko hizkuntz gaitasunak Erdi eta Goi mailako ikasketak bai Euskaraz bai Erdaraz jarraitu ahal izateko.

— Euskararen aldeko jarrera eta jokaerak (bigarren hizkuntza dute). Eskola bidez eta urtez urte bigarren hizkuntza bat ikasi eta hizkuntza horretan egindako ikasketak duen zailtasunak zama artifizial gehiegirekin eta hizkuntza guztiek eskatzen duten identifikazio eta hurbiltze goxorik gabe egiteko arriskua dakar. Horregatik haurrak Euskara berea, bizia, bere sentimendu eta hunkipenak adierazteko gai izan dadin gure lanean ahalegintzea.

Gure heziketa lan guztia zenbait aukera teorikotan oinarritua dago (urte askotako ahalegin zintzo eta konszientean frogatuak) aldakari multzo bat bezala gauzatzen direnak eta gure ikasleengan eskatzen dugun kalitate mailarekin erabakior direnak Euskararen ezarpenean.

I. Goiz hurbilpena

Lehen bait lehen sartu behar da Euskara. Guk hiru urtetan egiten dugu. (lehenago hobesten dugu).

II. Bide berjabea euskararentzat

Euskarak erdararen menpekotasunik gabe sortu behar du. Beharrezko elementu guztiak eduki behar ditu autonomia eta koherentziaz osatzen joateko. Euskararekiko identifikazioa hura sartu behar dugun ingurunean eskeini-ko ditugun helduen eredu eta prestatuko ditugun harreman egituren bidez burutuko da. Horregatik ezinbestekoak ditugu:



1) *KOHERENTZIA EUSKARA BIDERATZEKO EREDUETAN*: irakasle eta laguntzaile euskaldunak.

2) *EUSKARA HUTSEKO GUNEAK*: gure ingurunean Euskara ikasketa eta bizitza, batera, izango den eskolagune koherenteak sortuz bakarrik lor dezakegu. Horregatik ikastola saiatzan da ikasketa eta pertsonen arteko harremanak Euskaraz baino ez daitezela izan.

3) *IKASLEEN ARTEKO HARREMANAK EUSKARAZ*: funtsezkoa da Ikastolako ikasle zaharrenek (hizkuntzazko gaitasun eta trebezia nahikoa dutenak Euskaraz beti mintzatzeko) Euskaraz hitz egitea bizitza eskolarreko topagune eta elkargune guztietan (jolasaldiak, jantokia, sarrera irteeretan, pasabide, autobus, geltokietan,...) txikiengan duten imitazio indar haundiagatik.

4) *EUSKARA SARTZEKO FAMILIAK ZUZENKI PARTE HARTZEA*: maitasun gune gorena den etxera zabaldu behar da Euskara. Hor ikusi behar du ikasleak helduek eta ikastolako ikasle zaharagoek erabiltzen duten komunikazio hizkuntzak baduela oihartzuna eta erantzuna bere familian.

Eta hau honela:

- Kanta eta ipuin egokituen bidez.
- Euskal Telebistaren erabilpen egokiaren bidez.
- Haurrentzako ikuskizunetan parte hartuz.
- Eta gehien batez, anai-arreba zaharrenak txikiagoe-kin Euskaraz ari daitezen bultzatuz.

Euskararentzako bide berjabe hau piskana piskana gaztelera jaun eta jabe den inguruntara zabaltzen joango da. Berau gertatuko da gure ikasleek Euskararen barneratze eta autonomia gero eta haundiagoa lortzen baldin badute. Dena den, Euskarak gure ikasleengan itsasteko behar duen giro babestu eta homogeen horri uko egiteak identifikazio eza eta urruntze atzeraezina ekarriko luke, akademiako hizkuntza, hotz eta harremanetarako indarririk gabekoa bihurtuz. Hasierako babespen hau beharrago da ingurune erdaldunaren indarra haundiagoa eta eraginkorragoa den neurrian (familia, lagunak, komunikabideak...). Ez gaude hizkuntz borroken gune bereziak sortzen, bai-rik eta bigarren hizkuntz gaitasun bat sortzen (Euskaraz) ahalik eta berdintsuena lehenarekin (Gazteleraz), haur elebidunak lortzeko xedera ahalik eta gehien hurbil gaitzen moduan. Haurrak, Ikastolak Euskarari ematen dion babesa izanik ere, ingurune eta pertsona erdaldunekin erabateko kontaktu eta harremanean dago; eskolaz kanpoko bizitzan guztiz sartua dago eta era berean gaztelerazko ulermen eta adierazpen gaitasuna haunditzen du.

III. Euskaraz eskolatzea

Irakurtze-idazte eta matematikazko adierazpena ere Euskaraz hasiko ditu horiek menperatzea lortu arte. Beranduago gaztelerazko irakurtze-idazte kodea irakatsiko zaio bi hizkuntzetan O.H.O. bukatzerako ulermen-adierazpen gaitasun berdintsua lortu arte.

Honek esan nahi du haurrak lortu duela Eskolaurrean Euskaraz hitz egiteko ohitura eta gaitasun nahikoa (entzun behar zaio hizkuntza honetan noiznahi mintzatzen).

Argi utzi nahi dugu atal honetan hizkuntz jatorri erdalduneko ikasleek duten erreztasuna Euskaratik Gaztelerara egiteko eskolan lortutako tresna eta logikazko baliapideekin, ikaragarri zaila delarik baliapide horiek gazteleratik euskarara egitea. (Kasu hauetan Euskararekiko egoera eta jarrera amorrutako ugari gertatzen dira. Gogoan ditugu gazteleraz eskolatu eta euskara piskana piskana sartzeko ereduak, hain emaitza urriak eta hain jarrera istiluzkoak sortu dituztenak umeengan eredu hauek erabili ondoren).

IV. Konpromezuan elkarturiko irakasleagoa eta jarraitzeko aukera duena

Ikasleekiko harremanetan modu berriak asmatu eta planteatzeko gauza diren irakasle praktikoak, baita gure ikasleen erantzunetan benetan eragina duten aldakariak ikertu eta esperimintatzeko ere. Behatzaile onak eta sortzen doazen portaeren moldatzaile dinerak.

Porrotean baino arrakastan hezteko gauza diren irakasleak..., porrot egin duten hartan baino asmatu duten horretan gehiago bultzatuz.

Irakasle ongi informatuak, sortzaileak, planifikatzaileak, Euskara menperatzen dutenak... Interesdunak, motibatua eta motibatzaileak.

Irakasle finkoak hezkuntz plangintzei jarraipena emango dietenak eta planteamendu horien ondorioak ateratzea ahalbidetuko dutenak.

V. Ikasleen jarrera eta gaitasunak kontutan izango dituzten programak

1) Eskola mailetan zehar Euskara eta euskal kultura menperatu eta horietako gaitasuna garatuko dituzten programak. (Haurrek abesti, alegi, txiste, eskenifikazio, poesia, jolasaren bidez eskolako lana Euskaraz eta arrakastaz aurrera eramateko edukin kultural eta hizkuntzazkoa lortuko dute).

2) AKATS eta ERDERAKADAK zuzentzeko estrategiak kontutan izango dituzten programak, gaztelerarekiko nahasketarekin eskolatze maila ezberdinetan sortzen baitira.

3) Portaerazko helburuak bilatuko dituzten programak. Euskararekiko gero eta jokabide positiboagoak sortuko dituzten ekintzak, haurren josteta eta jolasaraino erakarriz. Garrantzizkoa da gure haurrek Euskaraz hitz egitea beren lagun edo anai-arrebekin dauden toki eta momentu guztietan (patioan, pasabidetan, jantoki, gelto-ki, autobusetan, Ikastolara heltze eta alde egitean).

Gazteleraz eskolatu eta euskara piskanaka sartzeko ereduak egoera eta jarrera amurrozkoak sortzen ditu

VI. Gurasoen bultzakada beren seme-alaben euskalduntzean

Famili laguntzazko iharduketa guztiak haurren lan eta ahaleginak jarraituz, baloratuz eta indartuz hasi behar dute. Guraso gehiengo batek Zentruak proposatzen dien heziketa lan eta partaidetzan kezkatu eta langile izatean oinarritu nahi litzateke gure Ikastola, Euskaraz aritzeko ohitura eskolatik kanpo sendotuz eta denena eginaz. Ekinbide hauen talde bultzatzailea gurasoen ordezkari

izango da. Hona bideratu eta bultzatzen dituen zenbait ekintza:

- Gelakoen arteko egonaldiak.
- Zenbait joko, gelatik kanpoko Euskara indartzeko familiaren interesa bultzatuz.
- Etxeko Euskarari jarraipena egiteko erregistroa.
- Euskal Telebista sustatzea.

VII. Ikasleen arteko giro lasaia eta bat eginiko lankidetzak

Ez daiteke eraiki atezuan eta beldurrean. Ezinbesteko helburua dugu ikasleak bere Zentruarekin, irakasle eta ikaskideekin pozik eta bat eginik egotea. Lasai eta patxadan egotea nahi dugu gehiegizko eskaerak edo hobekeri argelak sorturiko antsi eta amorrurik gabe.

Ikasleen artean lankidetzak eta elkar laguntzazko giroa sortzeko ahalegintzen gara, horrek gure helburuak, eskolako Euskara bizitzara eramatea eta haurren arteko komunikazio naturala lortzeko bidean partaide eta aktore bihurtuz. Ekintza eskeintza honen talde bultzatzailea Goi Zikloa izango da (O.H.O.ko mailako ikasleak bereziki), zeinak aldizka Ikastolan Euskara indartzeko iharduketa ezberdinak proposatuko bait dituzte. Era honetan, bes-teetat interesatuz eta haiek lagunduz eurak ere laguntzen dira.

E

uskaraz hezitzeak gaztelania nagusi den eremuan, laguntza eta ekintza aktiboak eskatzen ditu

VIII. Euskara gelatik kanpo hedatzea

Gure hezkuntz proiektuko puntu hau luze eta zabal azalduta dago ITACA aldizkariaren lehen zenbakian, 9 orrian, "EUSKARA GELATIK KANPO" izenburu pean.

Ahalik eta laburren saiatu izan gara gure Ikastolak hezkuntz praktika jasotzeko bere gain plataforma gisa hartzen dituen oinarri eta jarrera teorikoak azaltzen. Uko egiterik ez ditugun gutxienezko teorikoak dira gure asmoekin bat egingo luketen emaitzak lortu nahi baditugu. Hortik aurrera, planteamendu horiei ezar diezaikegun indar eta ardurak, baldintza fisiko eta materialeen hobekuntzarekin batera, emaitzak oraindik hobekien izan daitezkeen ekarriko du.

EGOERA ADMINISTRATIBOA

Kontzertua duen zentrua gara.

Sortu ginenean, beste ikastola batzuk bezala, konturatzen ginen, erantzun bat ginela. Euskara gure lurrian berreskuratzeko desafioari bide berritzaile bat ginela. Begi bistakoa zen ez zegoela pribatua baino beste bide egingarririk. Hala ere, inoiz ez dugu Zentru Pribaturen deirik sentitu. Beti uste izan dugu Administrazioa dela biztanleen hezkuntz itzaropen eta behar ezberdinei erantzun behar diena.

Ez gaituzte ondasun edo ondare haundiek lotzen. Urte askotako esperientzia praktikoa bihurtu den kontzepzio eta proiektu bati baino ez gaude itsatsirik. Kokaturik gauden eskualdeko famili sektore garrantzitsu bati bai kuantitatez bai kalitatez erantzuten diogun Zentrua gara. Haien zerbitzuan jarraitu nahi dugu gure hezkuntz ikuspegitik. Gure ikastola osatzen duten familiak ez dira nabari ez diru-sarrerara haundiagatik (ertainak, beste edozein Zentrukoekin parekagarriak) ez eta gizarte elitismo nahiagatik ere. Baina hori bai, jabetu egiten dira ez edozein bidetik eta ezta edozein eraz ere ez dela kalitatezko euskalduntzearen helmugara iristen.

Gaurregun, Administrazioa aukera publikotik bere planteamenduekin Euskarari erantzuten ari bada ere, tamalez, esan beharra dugu, haren eskeintzaren zenbait alderdirekin ez gatozela bat, behartuak egonik horratio gure proiektua posible egiten duen bide bakarretik segitzera: KONTZERTUDUN ZENTRUA izanik.

Une historiko bakoitzak bere erantzun argi eta tolesgabea eskatzen du; oraingoan gurea, garena izaten segitzea da, horrek ekarri behar dizkigun zailtasun haundiakarren.

Gogoeta honetan ez dezakegu tintontzian utzi Zentrua egokitzeko gure nahikunde ukazina, BERRIKUNTZAREN egitura berriaren arabera, 16 urtetaraino zabalduz, NAHITAEZKO SEKUNDARIOA gurera ekarri.

Euskara familian

Haurren Euskaraz hitzegiteko ohitura etxean indartu nahian Euskara laguntzak familietara bidaltzen jarraituko dugu. Ikastola eta etxea batekin Euskarak errazago izango du haurrengan emaitza hobekoak lortzea. Guztiok erne, ekinean ekinez, Euskararen alde gara. *8. mailako ikasleek, gela bakoitzari talde bat zuzendurik, emaitza estatistikoak biltzen arduratuko dira.*

— Hiruhilero inkesta txikitxo bat egingo dute telefonoz O.H.O.n seme-alabak dituzten gurasoei hots eginez.

— Seme-alaba bakoitzari dagozkion datoak bilduko dituzte.

— Emaitzak, datuak bildu ondoren, gurasoei bueltatuko zaizkie.

— Gelako delegaduek Euskara bultzatzeko eta gurasoen arteko hausnarketa sakon bat lortzeko topaketak antolatuko dituzte.



Gurasoen erneasuna positiboki haurren interesa lortzeko ekintzetan eta jolasetan bihurtzen denean Euskara errazago sartzten da haurren bizitzan.

Familian euskaraz:

Beren haurrak Euskaraz mintzatzen jartzea lortzen dituzten gurasoek berehala konturatuko dira seme-alaba gaztetxoengana kantitate eta kalitatezko Euskara sartzten eta sortzen dela. Honela Euskara hobeago eta hedatuago bat izango dugu gure artean. Baina kontutan izan ez dela aski esatea edo/eta errepikatzea mila aldiz; horrekin batera ariketak eta jokoak antolatu beharko dituzue benetako ohiturak inplantatzeko.

Hortarako honelako lan hauek burutuko ditugu etxetan:

— ANAI-ARREBEN ARTEKO EUSKARA KONTROLATZEKO ERREGISTROA.

Guraso eta seme-alaben artean beteriko erregistroa, noski. Astero osatzen joango zarete hiruhilabete amaieran emaitza orokorra jarri arte. Orduan 8. mailako emaitza hori eskatuko dizute ikastolako estatistikak burutzeko. Datoak:

- Anai-arreben arteko Euskara portzentaia. Nagusiek txikienei egindako Euskara bereziki interesatzen zai-gu.
- Autobus geltokietan egiten duten Euskara %.
- Autobusetan erabiltzen duten Euskara portzentaia.
- ETB ren erabilpena familian.

— FAMILIAN BURUTZEKO JOLAS BIDERATUAK.

— HIRIAN ZEHAR EUSKARAZ.

Talde txikientzat antolaturiko topaketak

Gela desberdinetakoen artean giro hobeagoa lortzea dute helburutzat. Geletako delegatuek eta guraso arduratuenean antolatuko dituzte ekintza hauek. Urtero zerbait prestatu behar dute gela bakoitzekoek taldekoen artean gero eta portaera baturakorragoak lortuz.

Haurrentzak bilera eta topaketa hauek zentzu handikoak dira bere gurasoak protagonismoarekin heziketa lanetan ikusten dituztelako. Honela gela barruko laguntasuna eta giro ona indartzen eta geroago haien arteko harreman extraeskolarrak sortzeko aukerak ere ugaltzen doaz.

Aukerak:

— Eperoko bilerak hiri barruko zelai eta parkeetan (igande goizetan...)

— Urtean behin: Topaketak etxe edo baserri batetan.

— Topaketak ikastolako jaialdi eta ateraldi nagusietan (Jolasparkea, Aralarreko jaialdia, Lizarra eta Toki Eder Ikastolakoekin topaketa...)

— Natur eta geografi ateraldiak gelako gurasoek antolaturik.

— Ikastaroen antolaketa (udaldirako bereziki).

Eta guztiaren gain gure haurren portaera linguistikoen behaketa. Jakin behar duzue zuen seme-alabek Euskara erabiltzen duten ala ez heuren harremanetan. Aurretik jakin, ondoren sustatzen, bultzatzen eta animatzen saiatzeko. Ez bagara gure haurren Euskarataz arduratzen sekula ez dugu ikasiko motibatze estrategiak planteatzen eta biddartzen eta erabat gutxiago zailtasunak konpontzen.

Garaia duzue euskara ikasteko

Ez dira gutxi beren kontura edo/eta gauskoletan Euskara ikasi nahian dabilzan gurasoak. Hala ere bideak erraztu nahian beste aukera berri bat ematen diegu ikastolako gurasoei eskola orduetan Euskara Ikasteko. AEK ko irakasleekin batera antolatzen ditugu talde hauek eta Atarrabiako kultur etxean ematen ditugu klaseak. Oraingoz 3 taldekin ari gara:

— Talde 1: *LEHENENGO URRATSA* 9,30 etatik 11,30 ak arte.

— Talde 1: *LAUGARREN URRATSA*: 9,30 etatik 11,30 ak arte.

— Talde 1: *LEHENENGO URRATSA*; 9,30 etatik 4,30 ak arte.

ETB eta Euskalerrria irratia

Euskal komunikabideak gure haurren bizitzan murgildurik egon behar dira beren Euskara aberasten eta dotoretzen joateko. Askotan orain arte erabilitako bideekin konformatzen gara eta nagikeriak bultzatuz ez dugu erdal telebistatik euskaldunera pasatzen. Arlo honetan ere gurasoen jokaera aktiboak eskatzen ditugu.

Bestalde, datorren azaroan, Euskalerrria irratia bere lehenengo emanaldiak aurkeztuko ditu eta hauen arrakasta Iruñean zertxobait ere gure erantzunaren eskutan datza. Ea guztiok ahal duguna eginez ederki oinarritzen dugun *gure irratia berri hau*.

Euskara gelatik kanpo atera behar da, aurretik gune eta harremanak euskaldunak ziurtatuko ditugularik

Euskara gelatik kanpo

Euskaraz hezitzeak, gaztelania nagusi den eremuan, zailtasun ugari ditu, laguntza eta ekintza aktiborik gabe okerantza gaindi daitezkeelarik.

Egoera honen aurrean, Euskara hizkuntza trebatua ezezik, bizia, bapatekoa indartzea dute gure asmo guztiek. Ezer gutxirako da errez trebatzea ala ez, ez bada lortzen eguneroko bizitzan, ohizko joeran, gure haurrek erabiltzea.

Haseran babestuko duen helburua erabili behar dugu, lekuak eta pertsonen arteko harremanak erabat euskaldunak izanen dituenak. Gune eta komunikabide hauek Ikas-

tola berak eskeintzen dizkio, beharrezkoa bait da ikastetxe bat izatea irakasle eta ekintzak osorik euskaraz gure hizkuntzarantz hurbilpena garantiaz eta kalitatez eman dezaten. Batasuna eta koherentzia nahastuen duen edozein zerak haurren euskararen barneratzea eta eraiketa ahulduko du.

Hizkuntz nahaste eta oztopoei soilik dagozkionez esan behar da, amoltsuz irrika baino gehiago, ez gaudela ados "LOS UNOS CON LOS OTROS" joate horren dauden eritziekin, ze hizkuntz emaitzetara gure haurrak izango ziratekeen "LOS OTROS" eta gazteladun ereduak berriz gure hizkuntzaren "LOS HUNOS" eta denok dakigu gure Euskara hasi berrian zein galgarria litzatekeen.

Ikastola barruan euskara orokortua jaso ondoren, beste mikroespaziotarantz hedatze uneari ekinen diogu. Ingurunearekin topatzean, elebitasun erantzuna era egokian gai izatea, honela euskaraz ikasi ezezik, euskaraz bizitzeko ohitura ere jaso dezan. Hizkuntz erosotasun honek gure haurrei beste hizkuntzak (ingelera, fransesera,...) ikasteko erraztasuna gehitu egingo zaie, ate berriak eta posibilitateak irekitzen zaizkielarik unibertsalagoak diren komunikabidetarantz.

Gure hizkuntz helburuen lorpenerako estrategi orokorrak

1) Inguruko errealitatearekin behaketa zuzena eta harreman bizia suspertu, Eskolar "Curriculum" a eta Ikastetxeko plangintza barnean zehazturiko ekintza desberdinen bitartez. Aurretik plangintza hau izateak batasuna eta ekintzen koherentzia bermatzen du ikasturteetan zehar. Ekintza mota hauek, ikasteko eta hezitzeke izatez gain, badute ere konbibentziko eta erlazional edukiak. Ikastolatik at hizkuntz jarrerak eta gaitasunak lantzeko beharrezkoak.

2) Ikastetxe plangintza barnean sartu familiarteko laguntzak, inguruaren ikaskuntza. Honela, irakasle, ikasle eta gurasoen interesak eta ahaleginak batzen lortu eta familien laguntzarekin irakasleen ekina indartu.

3) Harreman eta konbibentzi ekintzak antolatu, euskara gure ikasleen bizitzara pasatzeko behararen aurrean, heziketan parte hartzen duten alor guztiak suspertzeko.

1. Irakaslegoaren ikuspuntutik antolatu eta garatutako ekintzak

Konbibentziak euskaraz

Gure ikastolako maila guztiak konbibentziak egingo dituzte, gutxienez hiru egunetakoak, ikasgune kontestu desberdin batean euskaraz bizi daitezten. Komunikazio intentsiborako egoerak sortzea lizateke, ikasleen arteko elkartasun eta konbibentzi baloreak lantzeko egoera ezin hobeak. Eskolako larritasunaren ezak, jolas egoerak eta oinarritzko ekintzetan ikasleen parte hartze zabalak, hala nola: janaria, garbiketa,... etab., egiten dute euskara izatea hizkuntza bizia eta emozioa beterikoa.

HIRIAN ZEHAR EUSKARAZ:

Urtean hiru aldiz eginen dugu. Ikasleak lagun taldeka hirian barna barreiatzea da euskaraz jolas eta paseia deza-ten.

Gure ikasleek kalean euskaraz hitzegiteko ohitura har-zea nahi dugu eta bidenabar, gure hizkuntza ezagutu bai-na erabiltzen ez dutenen aditasuna lortzea. Honela, eus-kaldun guztion ekina den honetan bizkortzen eta sartzen joanen dira. Bestetik, gure hizkuntza ezezaguna zaienen-tzat garrantzizkoa da eguneroko bizitzan Euskara entzun eta ikustea.

Ekintza honek *une intentsiboak eta mantendu aldiak* ditu. Une intentsiboak goizean, 12 etatik 13,30 tara, iza-ten dira. Erdi eta Goi Zikloko ikasleekin, aurretik ikasto-lan aukeratutako talde eta lekuetan. Orokorki Iruñeako gure komertzial esanguratsuenean egiten da.

Mantendu aldiak Hirian Zehar Euskaraz direneko au-urretik eta ondoren izaten dira, asteburuko taldeak osatuz, gogozkoak zaizkien lekuetan euskaraz ongi pasatzeko.

2. IRAKASLE ETA GURASOEN ELKARREKIN ANTOLATURIKO IRTEERAK ETA PROPOSAMENAK

Jolas eta kirol ekintzek bai eskolakoek bai eskola kan-pokoek hizkuntz ohiturak sortzen dituzte gune eta egoe-ra berrietan. Futbito, saskibaloia eta beste zenbait jokuren bidez gure hizkuntza urratsez urrats normalizazen goaz. Honela ikasleek euskara hurbilagoa izatea lortzen dute norbera eta bestekiko.

Helburu hauek indartzeko honelako efintzak desarroi-llatzen ditugu:

EUSKARAREN OLINPIADA:

Kirol-jolas ekintza hau Lizarra eta Toki Eder ikastola-koekin batera eginen dugu. Aurten honen antolaketa Toki Eder Ikastolari dagokio Gasteizen. EUSKARAN BATE-GINIK gurasoek, ikasleek eta irakasleek suspertzeko eta sentsibilizatzeko euskaraz jolasean eta kirolean parte har-tuko dute.

IKASTURTE AMAIERAKO AGURRA ARALARREN:

Aurreko urteetan bezala Aralarko zelaitan gelaka elkar-tuko gara. Konbibentzi honetako giro lasaia aprobeztatuz taldeko martxa, haurren harreman kalitatea eta Euskaraz hitzegiteko gaitasuna beraien artean eta gurasoen aurrean. Eraberean, gela bakoitzak antolatzen dituen opor ekin-tzak xehetuko dira.

UDALEKUAK. IDAKO KANPALDIAK:

Beste atal batean azaldu diren udako kanpaldiaz aparte, gela bakoitzeko Ordezkariek ikastaroak eta opor ekin-tzak antolatuko dituzte bere mailara zuzenduak: ingelera, igeriketa, plastika, kaping, bidai naturalistikoak...



3. GURASOEN ESKUTIK ANTOLATUTAKO EKINTZAK ETA KONBIBENTZIAK

Gurasoek ikastetxearen egitasmoak eta helburuak sus-tatuz, irakasleen ekina indartu eta osatuko dituen zenbait ekintza bideratzen dute. Ekintza guzti hauetatik aipaga-rrienak hauek dira:

GURASOEN KONBIBENTZIAK:

Gurasoak elkarren artean antolatuko dira beren arteko harremanak sendotzeko eta ikastolako ekintzetan murgil-tzeko. Programatu daitezkeen harremanak: egun bateta-koak, autobusetan edo/eta norberaren kotxeetan mendira edo leku atsegin batetara; edota asteburu batetakoak.

Eraberean Iruñeako parke eta leku lasaietako topakete-kin jarraitu behardugu, haurrak euskaraz pozik eta jola-sean izan daitezkeen. Topaketa hauek zuen semeek ikastola-tik kanpo euskaraz hitzegiteko ohitura gehitze horretan sarrarazi nahi dituzte.

JOLASPARKEA:

Euskaraz jolasteak jarraitzen du gure JOLASPAR-KEAREKIN helbururik nagusiena izaten. Gurasoen elkartasuna eta aisealdirako heziketa dira beste helburu batzu gure Haur Parke honekin oraingoz etsi ez ditugu-nak.

*José Luis Gorostidi
Paz Zigandako Zuzendaria
Iruña, 1989*



Euskara 2. Hizkuntza denean

Kanpazar Eskola Publikoko esperientzia

Askotan diglosia egoera bera hizkuntza bat garatzeko edo normalizatzeko prozesua -Euskara gure kasuan- oztopotzat jotzen da, hizkuntza menperatzaileak duen eraginaz eta gizarte honen instituzioek jokatzeko duten papera eskasa aitzakitzat hartuta, Euskera aurrera eramateko prozesuak eskeintzen dizkigun esperimendatzeko aukera eta bertan ematen diren hizkuntz esperientziak ez ditugu behar bezala kontutan hartzen.

Bizi garen egoeran, gu esperientzi esportatzaile izan beharko ginateke, hau da: 2. hizkuntzari buruzko tratamenduaz esportatzaileak, baina tamalez ez da horrela gertatzen.

Betidanik Administraritzaren ikusmirak kanpora jo ohi du, barrukoa begiratu beharrean edo gutxienez bertan planteatzen ziren mugimenduak kontutan izan gabe.

2. Hizkuntzaren irakaskuntzaren tratamenduari buruzko jakintsu asko eta asko, kongresuz kongresu ezagutu ditugu. Honekin ez noa zerbait aportatu dutenik ukatzera, baina bertan gastatu den diruaren zati bat bertako esperientziak garatzeko gastatu izan balute

askoz errentableago izango litzaiguke maisu-maistra arruntori. Jakintsu horiek esaten zutenaz, agian ulergarriago izango delarik eta praktikan, Euskera eskolarizatzeko garapen kontuetan beste soinua bat entzungo genuke, dudarik gabe askoz baikorragoa.

Beste hainbeste pasatu da, orain arte, euskal ume literatura munduan ibilitako idazle ospetsu batzuekin, eskola mundua ezagutu gabe, alaitzuki hortik ibili dira aholkuak emanez 2. hizkuntzaren tratamenduari buruz zerbait jakingo balute bezala, umeei bere produktoa eskeinuz, kasu askotan gure bidez, 2. Hizkuntza garatzeko pauso minimoak ezagutu gabe, baina beraien izenez gure materialak josita daude.

Aurrekoan ere, tajante izan behar gara: Gauza bat da haur literaturan sortzaile izatea eta beste bat da 2. hizkuntzaren tratamenduaz aritua izatea.

Eta ez batean ez bestean gure Euskal Administraritzak ez da ibili oso fina. Batzutan Euskararekiko hizkuntz helburuak, laguntasunarekin nahastu egin ditu.

Bitartean, guk oinarrizko maisu-maistrotok hoiengandik orientabide zain jarraitzen dugu, bide berriak zabaldu nahian.

Gure kasua, beste hainbestena izan liteke larrik, honako ezaugarriak izan ditu:

86-87 Ikasturtean 3 urtetako eskolakumeak jasotzerakoan zalantza izugarri batez gauzak birplanteatzen hasi ginen: Posible ote da Administraritzak eskeintzen dituen orientabide eta materialatik abiatuz, umeak 2. hizkuntzan (Euskeraz) hiru urtetan zehar hiztunak ateratzea?

**ADMINISTRARITZATIK
JASOTAKO MATERIALAK ETA
ORIENTABIDEAK NONDIK
NORA.**

Eskoletara heltzen zitzaizkigun



orientabide edo programaketak gramatika ikuspuntutik abiatuak ziren:

- Arau gramatikalak menperatuz gero, umeek orokorrera pasatzeko gaitasuna izanik, gure lana gramatika arauak kontestualizatzea eta ariketa errepetitiboan bidez, umea euskaldun bihurtzea izan ohi da.

Ezin da ukatu emaitzak batzutan dexente samarrak sortzen direnik, inola ere ez, baina inondik ere planifikazio horri esker.

Bigarren hizkuntza sortzeko gramatika garapenean oinarritzen diren orientabideek edo metodologiek argi eta garbi bere ezintasuna agertu dute hemen eta edonon. Baina kontraesana bezala metodologi hoiek erabiltzen zituzten estrategiak eta irakaslearen eraginari esker eta nola ez, ume taldearen interakziori esker, emaitzak ez ziren hain txarrak espero behar ziren bezala. Gero emaitza hoiek justifikatzeko gusto askotako aitzakiak erabili dira.


Hiru edo lau urteko ume batentzat, zein zentzua du errepikatze ariketak planteatzeak?

Baina zer nolako arrazoi dago, aintzinako planteamendua baztertzeko?

- Bigarren hizkuntza garatzeko, gramatika garapenean oinarritzen diren metodologiek gramatika arau ordenaketa bat, helburu planifikatzeko momentuan, exijitzen du, helburu nagusia ahaztuz: Edozein gizartean Hizkuntza komunikatzeko erabili izan ohi da eta ume txikiekin arrazoi askoz gehiagoz.

Gramatika arau ordenaketa lan honek ez du suposatzen umea hiztun aterako duenik, hizkuntza erabiltzearekin edo hizkuntzaren funtzionaltasunarekin zerikusirik ez duelako.

Hiru edo Lau urteko ume batentzat, zein zentzua du errepikatze ariketak planteatzeak?



Umeari exijitu dioguna zera da: Konzienteki gramatika arau bat erabiltzea. Oker gaude, 2. hizkuntza hori umeak ikas dezan, estrategiak planteatzen ditugunean. Ume horrek 2. Hizkuntza hori bere hizkuntz hipotesiak ahalmenari esker, hizkuntz hori lor dezan.

Okertze hori hasierako planteamendutik datorkigu: Helburua ezin da planteatu ume txiki horrek 2. Hizkuntza ikas dezan, hizkuntz ariketen bidez, baizik eta ume honek bere hizkuntz hipotesiak eraikitzeke ahalmenari esker 2. Hizkuntza hori komunikatzeko lortzea.

Kasu honetan orientabide komunikatiboetara jotzea ezinbestekoa da.

2. Hizkuntzaren lorpenaren funtzionaltasuna hasiera hasieratik eta eskola harreman mota guztietan, ageri behar da gure planifikazioan.

5 Urteko ume batek 2. Hizkuntzaren funtzionaltasuna sumatu behar du, bestela 1. hizkuntzara joko du eta horrek inmertsio sistema batean frakaso suposatzen du.

Eskolaren Hizkuntz Helburuak inmertsio sistema batetan:

Eskolak, eskema klasiko bati jarraituz 2. Hizkuntza (Euskera, gure kasuetan) eskola edukiak transmititzeko erabiltzen du. Hau bete ahal izateko baldintzak:

- 2. Hizkuntza horretan gaitasun handia lortzea.

- Prozesu osoan zehar, baina batez

ere, eskolarizatze hasieran planteamendu berezia ezartzea.

- Lehenengo urteetan, 2. Hizkuntza horri, tratamendu baten bidez lehenetasuna ematea.

Beste aldetik ere, Eskolan, beste gainontzeko trebetasunak garatzeko, hizkuntz trebetasuna lortzean datza.

Badirudi zerikusirik zuzena dutela eskola arrakastak eta hizkuntz trebetasunaren garapenak.

Eskolaren diskurtsoa oso teorikoa da. Eskolaren helburu orokorra: Ezaguera erabiliz, soportegabeko testuak interpretatzeko eta erabiltzeko trebetasunak garatzean datza.

Baina eskolaren helburu hori lortzeko, 2. hizkuntzaz, batez ere, egoera soportegunak eta era komunikatiboaren bidez hasi behar gara eraikitzen.

Beste oinarri bat: Hizkuntz trebetasunaren garapenak komunikazio gaitasunarekin zerikusirik handia du eta lehenengoa lortu ahal izateko, bigarren hori lortu behar dugu.

Beraz 2. Hizkuntza horretan lorpenak jasotzeko Eskolak garatu behar duena:

- Komunikatzeko kontestu eta egoerak bilatzea eta kasu batzutan sortaraztea.

- Umeak erakartzea eta egoera horiek biziartzea.

Komunikatzeko gaitasuna ga-

ratzeko egoera interaktiboen bidez lortuko da, kontestu berberaren parte hartuz, eta behar diren harremanak sortuz (Iraskasle-ikasleen artekoak, ikasle-ikasleen artekoak etab.)

Brunerren azalpenei jarraituz ume batek hizkuntza bera nagusiarekin egoera komunikatiboak konpartituz lortzen du. Lortze horrek, umeak pauta fijo eta ezagutuen bidez, esanahi hipotesiak eginek, esanahi eraikitzean datza.

Hizkuntza garapen normalak bere prozedura naturala du:

- Gero eta gehiago ulertzen da.
- Lehenengo azalpenak agertzen dira.
- Hizkuntza gero eta zabalagoa egiten da.

Hala ere 1. Hizkuntza eta 2. aren arteko ezberdintasunak badaude eta hau da gure kasua.

Ezkerraldean, ume guztiek badute 1. Hizkuntza (Gaztelania) eta hori lortzeko sistema bat esperimintatu du, beraz Hizkuntz "bagaje" bat du. Umeak hizkuntza hori barneratzeko estrategiak aprobetxatu behar ditu 2. hizkuntza planifikatze horretan.

Konpartitu behar diren egoerak auresankorrek dira, beraz gure programaketetan kontenplatuak izan behar dira.

Vitgosky eta inputaren legea ontzat hartuz, umeak ezagutzen duen puntutik abiatzea eta pauso bat gehiago eskaintzea, "klaseak" izango lirateke 2. Hizkuntza garapenean.

Lehendabizi aipaturiko "pauta" edo egoera hoiek, aurretik ezagunak direlarik eskolaratu egin daitezke, eta eskolaratze horretan datza. Baina zein motatakoak dira?

- Klasean zuzenean bizi daitezkeen egoerak.

- Familian edo etxean bertan ematen diren egoerak.

Egoera hauetan ere, umeak, komunikatzeko estrategiak antolatuko ditu eta komunikazioan parte hartzeko aukerak esperimintatuko ditu.

Marko sikopedagogikoa ezagutuz gero, gure hipotesi orokorra nondik nora: Eskolaurreko umeak, bere eskola munduarekiko komunikatzeko trebetasunak, komunikazio estrategiak posibilitatuz, bigarren hizkuntzan egin ditzake.

Komunikazio estrategiak posible egin ahal izateko eskolan bizi daitezken egoerak umea erakarri behar du.

Beste aldetik garai honetan, ahozko trebetasuna, bakarra denez, komunikatzeko estrategiak ahozko

2. hizkuntzaren funtzionaltasuna sumatu behar du, bestela

1. hizkuntzara joko du

hizkuntza garatzeko ezarri behar dira. Eta honek ahozko hizkuntz funtzioak menperatzea eskatzen du.

Hona hemen, komunikatzeko estrategiak planifikatzeko ezinbestekotzat jotzen den terminoa: Hizkuntz funtzioa edo entzulearenganako hiztunaren helburu nagusia.

Hizkuntz funtzioen garapenaren planteamendua, metodo komunikatiboen planteamenduekin bat dator. Horregatik ere gure planteamendua, metodo komunikatiboen bariante bat besterik ez da.

Guzti honekin ziurtatu nahi duguna zera da: Umearen komunikazioa, gure hizkuntz helburu orokorra komunikazioan bait datza.

Komunikatze helburu hori hiru etapetan mailakatu genuen:

- Irakasle eta ikaslearen arteko komunikazioa lortzeko estrategiak

- Ikasleen arteko komunikazioa lortzeko.

- Ikasle munduarekiko komunikazioa lortzeko estrategia eta honek hizkuntza "narratiboarekin" zerikusirik handia zuelakoan, arlo berezi bat eman diogu hizkuntza narratiboa garatzeari.

Metodo komunikatiboan hizkuntz funtzioa da ardatzarik nagusia eta gure programaketa guztiak, intuizioz mailatuta, hizkuntz funtzio hoiek sistematizatuz joan ginen. Hauekin batera, gaiak eta hizkuntz funtzio horiek ulertzeko beharrezko ziren nozio (konzeptu) orokorrak eta espezifikak, eta hizkuntza bizia egiteko: Modismoak.

Gramatika arauak inplizitoki tratatuak izan dira, nahiz eta gure programaketetan argi eta garbi arlo bereziz agertu.

Programaketa zati honen helburua ez zen gramatika arauak ikastea berez, baizik eta komunikazio zuzena mantentzeko errespetatu behar diren arauak, mensajea ziurtatzeko.

Metodo Komunikatiboaren ezaugarriak:



- Mezuan oinarritzen da.
- Hizkuntza funtzio eta nozioak dira gehien programatzen direnak.
- Funtzio bakoitzak hizkuntz forma ezberdinak ditu.
- Hizkuntz funtzioen garapena:
- Eskolakumearen ikaskuntzaren araberan.
- Hizkuntza mailaren araberan.
- Helburuaren araberan.
- Momentu bokoitzean hizkuntz formarik egokiena erabili behar dugu.
- Okertzea ikastearekin batera dator. Errakuntza Hizkuntza garapenean normalizat hartzen da.
- Gramatikaren tratamendua era inplizito batez egiten da.
- Kontestutik kanpoko erreplikaketak ez dute ezertarako balio.

GURE PLANIFIKAPENA

Aurretik intuizioz jokatu dugula esan behar da, inolako erreferentzirik izan ez dugulako eta kritikagarriak diren termino edo era batzuk sartuta egon direlarik. Gaur egun akats hauetaz ohartuta metodologia bideratu nahian Santurtziko P.A.T.ek antolaturiko mintegian zuzendu eta hobetu nahi dugu gero ikusiko dugunez.

- Eskolaurreko gai topikoetan oinarrituta nozioak garatuz joan ginen. Zergatik topikoak (Gorputza eta abar) eta ez beste egoerek ematen duten eskeintza aprobetxatzea? Hau da, orain errebisatzen ari garen puntu bat. Baina hasieratik hartuta, bere azalpenak duen

Erreztasunari begira, nozio erreferentzialak eskeintzen zizkigulako.

- Hizkuntz funtzioak garatzearen beharrak, hizkuntz funtzio zerrenda elaboratzea agintzen zigun eta, gero eta zabalagoa eginez, hizkuntz funtzio zerrenda, umeen garapenari begira osatuz joan ginen.

- Gramatikan oinarritzen ziren hizkuntza markak, komunikazioaren beharretarako gure programaketetan planifikatuz joan ginen.

- Hauekin batera, Hizkuntza bizia beharrezkoa diren marka linguistiko eta estralinguistikoak: Modismoak.

Hizkuntz eduki hauek aurrera eramanez ahal izateko ipuina izan da, hiru urtetan zehar, ikasturte hauen lotura, bera izan da ere guretzat, gure zereginetaz gain, errekurtsorik garrantzitsuena.

Hizkuntza narratiboa garatzeko eta honen barne hizkuntz funtzioen erabilpenari buruzko hipotesia zabaldu genuen:

“ 2. Hizkuntza garatzeko Ipuinak beharrezko egoera interaktiboak agertzeko, hizkuntz marko paregabekoa eskeintzen digu eta honen bidez zenbait kanpoko egoera, umeei biziartzeko eskolaratu ditzakegu”.

Ipuinak, berak, alde batetik kontextua hurbiltzen digu eta bestetik, hizkuntzaren eredu bat eskeini diezaguke.

Ipuinaren erabilpenak, kontes-

tualizatze beharrari jarraitu nahi izan zion eta horretarako etapa ezberdinak bizi izan dira:

- Deskriptibo Mailatik abiatuta: Irudiak eta kontestuak oso hurbil daude, beraz ipuin hauen helburua esanahi oinarrietaz jabetzea da. (Oinarrizko Hiztegia).

2. hizkuntzaren ikasprozesuak beste arloen errendimendua ez du gutxitu

- Deskripzio mailatik Komunikaziorantz: Ipuin hauen helburua: kontestu batetan agertzen diren ahozko mezuak eta pertsonaien arteko harremanak.

- Hizkuntza adierazkorra bilatzen duten ipuinak: Hemen deskribapena hizkuntzaren zati bat besterik ez da.

Ipuinan bertan hizkuntz funtzio asko eta asko agertzen dira.

- Hizkuntza adierazkorra eta narratiboaren arteko zubia eskeintzen duten ipuinak: Hizkuntz eredu gehiago errespetatzen da pertsonaien mezuaren garrantzia galdu gabe.

- Hizkuntza narratiboa garatzen duten ipuinak: Honen helburua entzuleari mezua (Historia) ez zuzena pasatzea da, hau da: Pertsonaiak eta gertaerak denborak baldintzaten ditu.

Hizkuntzaren garapenean etapa hauek, hoiaren artean tartekatzen dira momentu askotan, baina garapen logikoari begira aurrerako klasifikapena izan da jarraitutakoa.

- Deskriptibo garaian: Aintzinako programaketen artean aukeratuak izan dira.

- Hizkuntza adierazkorra eta narratiboaren arteko garaian: Ipuin tradizionaletan oinarritu ginen.

Eta azkenik Narratiba eta



hizkuntza adierazkorra ahaztu gabe, lantzeko ipuinak euskal leiendatik abiatua, testu eta marrazkiak sortu ziren.

Testuaren elaboratzeak bi zati zituen:

- Narratiba - deskriptiba deritzona.
- Elkarizketa edo komunikazio zuzena bilatzen duena.

Testua egiterakoan garatu behar ziren hizkuntz funtzioak sartu nahi ginituen, erabilpenaren errentabilitatea kontutan hartuz.

Materiala Planifikatzeak garrantzia handiko gauza izan arren 2. Hizkuntza garatzeko irakaslearen eragina nabarmenena izaten zela ohartu ginen eta umeek kontestuetan parte hartu nahi izateko, ipuinaz gain beste estrategi asko bizi izan dira klasean.

EMAITZAK

Klasean umeen arteko harremanak euskeraz egitea ezezik, kalean ere euskera 2. Hizkuntza izanik, beraien arteko komunikatzeko hizkuntza baliogarria izan dela argi eta garbi frogatu dute.

Aurrekoak bai aplikatutako metodologia bai bizi diren etapa guztiak baliogarriak izan direla frogatzen du.

Hizkuntza Narratiboa garatzeko egin diren saio eta ahaleginak oso

Eskolan, 2. hizkuntzarekiko mantentzen diren eskemak errebisatu beharra dago

aprobetxagarriak ere suertatu dira. Etapa honen amaieran, umeak, hiztunak, berba egiterakoan hartzen ditu eta are gehiago berak historio bat kontatzerakoan era aberatsean egiten zuen.

Beste aldetik ere, ume guztiei (3 klase) 75 umei, pasatutako testetan (Pir 5, Hizkuntza maila neurtzeko; BOHEM - Oinarrizko kontzeptuak neurtzeko- eta Reversal -grafiak diskriminatzeko) oso



emaitzak baliogarriak ematen zituzten. Honek hasieran jarritako baikortasuna baieztatzen zuen eta beste aldetik 2. Hizkuntza garatzeko aplikatzen ziren estrategiak ontzat gelditu ziren.

Prozesu honen ondorioak:

- Umeak 2. Hizkuntza ikasprozesuarekin identifikatu dira.

- Umeak, bai eskola esparruan bai kanpoko harremanetan euskeraz mantentzeko kapazak izan dira.

- Ia ume guztiek, beste arloen errendimendua jeitsi gabe, irakurketa eta idazketa 2. hizkuntzan egiteko prestatuta daude.

- 2. Hizkuntzaren ikasprozesuak beste arloen errendimendua ez du gutxitu.

- Erabili den metodologia aintzinakoarekin konparatuz askoz logikoagoa eta eragin handiagokoa izan da. Beraz, eskolan 2. hizkuntzarekiko mantentzen diren eskemak errebisatu beharra dago.

- Prozesu honen zehar sortutako materialak eta metodologia hobagarriak dira.

MINTEGI BERRIA ETA METODOLOGI HONEN HOBAGARRIAK DIREN PLANTEAMENDUAK:

- Santurtziko P.A.T. ek antolatutako mintegian, C.P. kanpazar ikastolan erabilitako esperientzian oinarrituta dago eta eskualdeko beste ikastetxeetara pasatzeko asmoz, hasierako planteamendua zenbait aldaketa jasatzen ari da, logikoagoa bihurtuz eta hainbeste

erabilitako intuizioa ahal den neurrian baztertuz.

Oraingoan (3 urteko umeentzako programaketak prestatzen ari bait gara) umeak eskolan eta eskolatik kanpo bizi ahal dituen egoeretan oinarritzen gara, gero hizkuntz funtzioak programatzeko. Hau da, 3 urteko ume batek, zer nolako egoerak bizi ahal dituen estudiatu dira eta egoera hoiak (kontestu biziak) historio baten bidez (Hizkuntz funtzioak eta nozioak sekuentziaz erabiliz) bere aurrean, umearen aurrean jartzen diogu, bere hizkuntz estrategiak eratu ditzen.

Honen bidez, kontestua umearengandik oso hurbila eta bizia egiten dugu.

- Programaketa bakoitzak, beste errekursoetaz gain, 4 egoera ezberdinak, ipuina erabiliz, eskeintzen dizkio umeari. Era horretan, umeak kontestu horretan inplikatu egiten dugu, bera historiaren protagonista bat izanik.

Jarraitzen den eskema:

Egoera definitu —> Egoera horrek esijitzen dituen hizkuntz funtzioak zehaztu —> Hizkuntz funtzioak hizkuntz formetan ematea.

Egoera bakoitza ipuin baten bidez, hau da kontestua sekuentziaz, aurkezten zaio umeari.

Aldaketa hauen ondorioak ikusteke daude, bitartean esperantzaz, lanean, hoi zain gaude.

Dan Alvarez
C.P. Kanpazar Ikastola - Portugalete



KILOMETROAK 85 inguruan egindako ikerketa

Urretxu-Zumarraga eta Legazpiko ikastolek, bailara honetako euskararen egoeraz kezkatuak, "jatorriz erdaldunak diren haurrak euskaldundu eta ikasketak euskaraz egin ahal izateko plangintza bat prestatzea" helburutzat harturik, KILOMETROAK-85 bailara honetan antolatu zuten.

Lanari hasiera emateko Batzorde bat antolatu zen. Honen, nahi ziren hainbat aurreproiektu aurkezteko epe bat ireki zuen. Hauek eskuratu ondoren bi fasetako plangintza bat eratu zen:

Lehenengo fasea: Ikerketa

Hiru herrietako jatorriz erdaldunak diren haurren hizkuntz egoera aztertzea Ikerketaren garrantzia kontutan izanik, Donostiako Filosofi eta Hezkuntz Zientzien fakultateko irakasle talde batengana jo zuen batzordeak. Talde honen kideak, (Peio Aierbe, Pakita Arregi, Feli Etxeberria eta Felix Etxeberria) eskola eta elebitasunari buruzko lanetan jardunak.

Ikerketa hiru herrietako ikastetxe hauetan egin zen:

- Legazpiko Domingo de Agirre (publikoa)
- Legazpiko Haztegi ikastola
- Zumarragako Zelai Aristi (publikoa)
- Zumarragako San Jose (pribatua)
- Zumarragako Escuelas Legazpi (pribatua)
- Urretxuko Gainzuri (publikoa)
- Zumarraga-Urretxuko Lourdesko Ama ikastola

Frogak B eta D erduetako haurrei pasa zitzaien maila hauetan.

- Eskolaurrean 5 urtekoei
- Hasiera zikloan 2. mailan
- Erdi zikloan 5. mailan.

Zumarraga-Urretxu-Legazpi bailarako ikastetxeetan burutu den ikerketa, ikerketa esperimentalen hildotik doa. Ikerketak ondorengo galdera nagusiari erantzun nahi zion: Euskara ongi ikasteko eta programetan agertzen diren ikasgaietan ezagupen on bat izateko, zeintzuk dira eragina duten aldagaiak?

Ikerketaren ikuspegi zabal bat hartzen badugu, zenbait puntu oso kontutan eduki behar ditugu:

- Euskalerriko herri eta hiri elebidunetan euskara ikastea posible da.
- Euskararen irakaskuntzak zenbait baldintza bete behar ditu ongi burutu dadin
- Euskararen irakaskuntzak ez dio inongo galerarik egiten gaztelaniaren irakaskuntzari. Hizkuntza berri baten jabekuntzak ez du galerazten lehendik etxetik dakarren hizkuntzaren hedapen eta garapenari. Euskararen ikaskuntza ez da gaztelaniarentzat kaltegarri.
- Euskarazko programen intentsitatea mesedegarri da euskara ongi menderatua izan dadin
- D eredua, hots, euskaraz burutzen den irakaskuntza ongarri da euskararen irakaskuntzarako eta ez die inongo kalterik egiten gainontzeko ikasgaietan aztertzen den irakaskuntzari. Euskararen jakitun izateak, euskara ikasteak, ez ditu galerazten eta jaisten ikastetxe batetan ikasi beharrezkoak diren beste ikasgaiak.

Euskararen irakaskuntzara itzuliz, zein kasutan lortzen da euskararen ezagupen hobea? Euskararen irakaskuntzan mesedegarri diren aldagaiak bi multzotan banatuko ditugu:

A. Ikastetxearen ezaugarriak

Ondorengo kasutan lortzen dira etekin hobek:

- D erduan
- Ikasgai asko euskaraz burutzen direnean. Zenbat eta ikasgai gehiago euskaraz burutu, euskararen ezagupen hobea lortzen da ikasleengan.
- Irakasleen esperientzia ikastetxe berean 3-4 urtekoa gutxienez denean. Beraz, irakaslearen estabilitatea, ikastetxe berean, mesedegarri da euskararen irakaskuntzarako. Lan taldeen prestakuntza eta osaketak denbora darama eta horrek suposatzen duen koordinazio eta talde lana euskararentzat mesedegarri da.
- Euskarari buruzko plangintza ona denean.

B. Familiaren ezaugarriak

- Ikasleak jatorriz euskaldunak direnean
- Irakaslearen gurasoak Euskal Herrian jaiotakoak direnean
- Gurasoen ikasketak altuagoak direnean

- Gurasoen lanbideak altuagoak direnean
- Gurasoen euskara maila altuagoa denean

Azterketaren ondorioz zera adierazi daiteke: Euskaraz burutzen den irakaskuntza, gure gizartean, prestijio sozial altu bat lortzen ari dela.

Bigarren fasea:

Ikerketa amaitu ondoren, bigarren faseari hasera emanez, batzordearen lana KILOMETROAK-85en helburua gauzatzeko plangintza bat prestatzea da.

Hau aurrera eramateko, batzordeak, proiektuak aurkezteko epe bat finkatu zuen. Epe horren barruan bi plangintza azaldu ziren:

Lourdesko ama ikastolarena

Ikastola honek, federazioak sortutako HAURTXOA proiektuaren partaide denez, plangintza honetan HAURTXOAREN JARRAIPENA HASERA ZIKLOAN gauzatzeko eskatu du.

Haztegi ikastolarena

Ikastola honetan, Piagetek egindako ikerketatik sortutako PEDAGOGIA ERAIKITZAILEA O.H.O.n aurrera eramaten delako, plangintza honetan PEDAGOGIA ERAIKITZAILEA ESKOLAURREAN gauzatzeko eskatu du.

Aurkeztutako bi proiektuek helburua betetzen dutenez, biak onartuak izan dira. Egin den ikerketaren barnean izan diren ikastetxeetatik, une honetan aurrera jarraitzen dutenak hauek dira:

- Urretxuko Gainzuri ikastetxe publikoak, Zumarragako Escuelas Legazpi Ikastetxe pribatuak eta Zumarraga-Urretxuko Lourdesko Ama ikastolak HAURTXOA proiektua jarraituko dute.
- Legazpiko Haztegi Ikastolak PEDAGOGIA ERAIKITZAILEARENA jarraituko du.

Plangintza aurrera eramateko, dagoeneko, ikastetxe eta irakasleek talde lanari ekin diote, eta batzordea, duen muga ekonomikoa kontutan izanik, behar den laguntza eskeintzen saiatuko da.

Guzti honekin bailarako euskara maila indartuko delakotan gaude.

Elebitasuna Euskal herrian: Ikerketa baten inguruan

Ondorengo lerroetan azkeneko urte hauetan azpian sinatzen duenak eta Felix Etxeberriak burututako ikerketa baten datu labur batzuk eta ikerketa horren inguruan sorturiko erreflesio batzuk luzatzen ditut.

1. Langaitz ikastolan ondoriotutako datuak

Langaitz ikastola. Beraunen. Errenderiko auzo erdaldun batetan kokatutako ikastetxe bat da. Ikaslearen % 95a hizkuntz jatorriz erdalduna da. Beraz hizkuntz giro erdaldunean kokaturiko eskola da.

Ikerketa eskolaurretik hasi eta goiko ziklorarte luzatu zen.

Hara hemen ikerketan erabilitako tresneria: hizkuntz testak. Konozimendu akademikoen testak, gurasoei inkestak. irakasleei inkestak, ikasleei inkestak gelako giroa aztertzeke.

Gurasoen aldetik eskola orokortasun baten barruan ikusten da. Gurasoen hizkuntz borondatea, beste aldagai batzukin loturik doa. Kalitatezko eskola bat (profesionalen prestakuntza, gelaren antolakuntza, disziplina erak, harreman humanoak, ikasleen prestakuntza maila, irakasle— gurasoen arteko komunikazioa...) nahi dute, nahiz eta hasieratik bere seme-alabak euskara eskura dezaten borondatea agertu. Guraso gehienek, ia denek, eskola euskaldunaren beharra baieztatzen dute. Eta eskolan lortzen ari diren euskara mailarekin ere nahiko ados daude.

Guraso horiei ez zaizkie atsegin gatazka itogarriak, eskola barnean politikariak, irakasleen artean, gurasoen artean eta guraso— irakasleen artean zatiketak...

Artikulu hontan irakasleek euskarari buruz duten pentsamoldea ere agertu nahi nuke, oso labur bederen: irakasle guztia ados dago D ereduarekin: programazioari buruz. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak argitara emaniko helburu eta programazioak jarraitzen dira. Za-



lantza haundienak euskararen ezarpen, implantazioari buruz ematen dira. Bi iritzi nagusi ikusten dira: irakasle batzuk beldur dira haur batzuk galtzaile irtengo diren eta ama hizkuntza behar bezala kontutan ez ote den hartzen: beste batzuk haur erdaldunekin emaitz onak lortzen direla eta haundia dela haur erdaldunak euskalduntzeko egiten den ahalegina baieztatzen dute. Denen iritzi etengabeko ebaluaketa behar da jokabide didaktikoak aztertzeke eta alderdi on eta txarrak objetiboki aztertzeke.

Artikulu motz honetan ezinezkoa zaigu euskarazko frogetan eta gainantzeko ikasgaietan aztertutako emaitzen agerpen oso bat egitea. Datu partzialak direla oso garbi utziz. B. mailako datuak soilik eskainiko ditugu. Datuen ulermen zuzen bat izan dezagun, ohar gisara, kurtso desberdinetan izandako ondorio desberdintasunetaz atenzioa deitu beharrean gara.

Idatzizko hizkuntz produkzioari helduz, ondoriotutako datuak eskainiko ditugu. Ondorengo indizetan muestra konparatzailea ikastoletako haur multzo bat (N= 72) eta D ereduko haur multzo bat izango dugu.

Zein indizetan ondoriotu dira Langaitz ikastola eta Ikastola (ikastetxe mota bezala) eta D ereduaren arteko parekotasuna?

— Hitz desberdinen indizean, hau da, ikaslearen hiztegi ugartasunean.

— Hitz erratuen indizean. Ikaslearen hitz ugartasuna kontutan izanik, hitzen zuzentasuna neurtzen da.

— Esaldi luzeraren indizean. Esaldi luzeak ala motzak idazten dituen jakin nahi da.

— Esaldi txertatuen indizean, hots hizkuntz konplexotasunean.

Eta zein indizetan aurkitu dira Langaitz ikastolako 8. mailako ikasleak, beste ikastolekin eta D ereduekin alden-duz maila bajuago batetan? Indize bakar batetan. Esaldi bakun erratuen indizean, hots perpausa bakunetan egindako errakuntzen azterketan.

Eta zenbait ikasgaietan zer pasatzen da? Gehiegi luzatu gabe, datuen agerpen batetara mugatuko naiz:

GAIA	MAILA	IKASTOLEN MEDIA	LANGAITZ
Matematika	8	24.31	27.94
Esperientzia	8	13.13	15.70
Irakurketa	8	9.62	10.76

Irakaskuntza euskaraz posible da giro normal batetan. Ez daukagu eskola idealean pentsatu beharrik

2. Ondorio laburtuak: posibilitateak eta baldintzak

1. Gure azterketa sistemak ondoriotutako datuen arabera haur erdaldunekin irakaskuntza euskaldun bat burutzea posible dela pentsatzen dugu, ondoren agertzen diren baldintza batzuk kontuan edukiz gero.

2. Eta irakaskuntza hori posible da giro normal batetan. Posibilitate hori aurrera eramateko ez daukagu eskola ideal batetan pentsatu beharrik. Giza talde instituzionalizatu guztietan bezala, eskola barnean gorabeherak egongo dira.


3. Ikerketa burutu dugun eskolan irakaslego guztia euskalduna zen eta irakasle multzo eder batek urteak zehar euskarazko irakaskuntzan. Beraz, euskararen eta euskarazko irakaskuntzan irakaslego esperientziduna zen.

4. Gurasoen adostasuna zegoen irakaskuntza euskaldun bati ekiteko. Bere seme-alabak euskaraz eskolatzeko borondate positibo bat agertu zuten esplizitoki.

5. Ikastetxean euskal irakaskuntzarekiko proiektu onartu bat zegoen. Instituzioaren partaideen artean, irakaskuntza euskalduna burutzeko denen proiektu onartu bat agertzen zen. Ez zegoen ezarpenik.

6. Ikastetxearen barneko ohizko hezkuntz esparruen funtzionamendu on edo normal bat euskararen irakaskuntzarako ezinbesteko eta lagungarri bilakatzen da.

Pello Aierbe Etxeberria
EHU-UPV-KO IRAKASLEA.
FILOSOFI ETA HEZKUNTZ
ZIENTZIEN FAKULTATEAN



Bibliografia

Liburuen laburpena

A.R. LURIA **Cerebro y Lenguaje**. Fontanella. Barcelona. 1974

Liburu honetan, afasia traumatikoari helduaz, buru funtzioen antolaketaz iharduten da Luria bai eta garunaren bakoitzak betetzen duen paperaz. Hitzekoak diren eta ez diren funtzioak aztertzen ditu. gnosia, praxia, hizkuntz espresioa, hizkuntz hartzailea, irakurketa, idazketa eta kalkulua kontutan hartzen dituelarik. Azkeneko atalean, rehabilitazioa aztertzen du.

A. R. LURIA **Fundamentos de Neurolingüística**. Toray-Masson 1980

Lehenengo zatian, hitzeko komunikazioari buruzko azterketa neuropsikologikoa egiten da bai adierazpen bai eta ulerketa mailan ere. Bigarren zatian, afasiari buruzko birkontsiderapenak egiten dira.

A.R. LURIA; F. Ia. YUDOVICH **El papel del lenguaje en la formación de procesos mentales**. Infancia y Aprendizaje. 1981. Monografikoa.

Berak dioen bezala, sobietar psikologiaren oinarri eta ikerketagai garrantzitsuenak, haurra bere inguruarekiko interkomunikazio dela medio sortutako prozesu mentalak eta hitzaren bidez transmititutako esperientzi erkideak izango dira.

Lev. S. VYGOTSKY **Pensamiento y Palabra**. Infancia y Aprendizaje. 1981. Monografikoa.

Izenburuak dion bezala, pentsamendua eta hitzaren arteko azterketa egiten du honako honetan, hitzaren esanguran

erdiratzen delarik. Esanahia, pentsamenduari atxekia dagoela kontsidera daiteke. Hitzaren esanahia pentsamenduaren gertakari bat da, hau hizkuntzaz arduratzen den heinean. Hitzeko pentsamenduari gertakari bat da edo adierazgarriarena; hitz eta pentsamenduaren arteko elkarketa bat. Hitzaren esanahia, eboluziozko prozesu bati dago lotuta. Hitza eta esanahiaren arteko elkarketa sendoagoa edo ahulagoa bihur daiteke baina inoiz ere ezin du bere natura psikologikoa aldatu. Hitzen esanahiek garapen prozesu bat dutela aurkitzarekin batera, pentsamendua eta hitzkuntzaren azterketak bide berri bat aurkitu zuen. Dinamikoak zirela eraiki zen eta haurren garapenarekin batera, pentsamenduak funtzionatzen duen modu desberdinen arauera aldatzen doana. Hitzen esanahiaren barru-egitura aldakorra bada, era berean, pentsamendu eta hitzaren arteko interakzioaren azterketari, pentsamenduak hitzen bidez formulatua izan aurretik zeharkatzen dituen fasea eta planoen ikerketarekin emar behar zaio hasera. Ondoren, azterketa honi ekiten dio.

J.P. BRONCKART **Procesos y estructuras del desarrollo del lenguaje**.

Infancia y Aprendizaje. 1981. Monografikoa.

Ginebrako Unibertsitateko irakasle honek dioen bezala, haurrengan ematen den hitzkuntzaren jabetzari buruzko ikerketak, lokagunean dago teori mailan batez ere. Aurkajarritako jarreretatik abiatuz, egungo psikolinguistikaren porrotaren arrazoiaren azterketa batetik eta bestetik, hemendik ateratzeko beharrezkoak diren baldintzak definitzen saiatuko da. Marko teorikoaren lehen urratsak aurkeztuko ditu batetik, haurrak, bere maila desberdinak mugatzeko eta bestetik, arazo desberdin horiek tratatzeko eraiki dituen prozedura eta estrategiak azeleratzeko.

J.F. HAMERS; M. BLANC **Bilingualite et Bilinguisme**. Pierre Mardaga. Bruxelles. 1983.

Honako gai hauen azterketa agiten da liburu mamitsu honetan:

-Elebiduntasun eta elebitasunaren dimentsioak; zenbait kontsiderazio metodologiko

-Elebiduntasun eta elebitasunaren neurriak.

-Elebitasunaren ontogenesia.

-Elebiduntasunaren dimentsio sozio-psikologikoak.

-Komunitate elebiduna.

-Elebitasun eta elebiduntasunaren azterketaganako disziplinarreko hurbilketa.

-Heziketa elebiduna.

-Elebiduntasuna eta bigarren hizkuntzaren ikaskuntza.

-Interpretazioa, itzulpena eta elebiduntasuna

-Ondorioak.

M. PARADIS; Y. LEBRUN **La neurolinguistique du bilinguisme**. Langages. 1983. 72. zkia.

Aldizkari honen 72. zenbaki honetan, M. PARADIS eta Y. LEBRUN, elebitasunaren neurolinguistikaz eta garun berdin batean bi hizkuntzen errepresentazio eta tratamenduaz aritzen dira lehenengo artikuluan. Bigarrenean, Robert J. ZATORRE, garunean hizkuntz anitzen errepresentazioaz eta honi buruzko aintzinako arazo eta orientabide berriaz arituko da. Hirugarren artikuluan, Loraine K. OBLER, elebitasunaren neuropsikolinguistikaz ihardungo da. Laugarrenean, Harold. W. GORDON. eta Robert WEIDE, honako gai honi buruz idatziko dute: zenbait funtzio kognitiboen ekarpena hizkuntzaren tratamenduan, bere jabetzan eta bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan. Bostgarrenean, R.L. RAPPORT; C.T. TAN eta H.A. WHITAKERek, txinera eta ingelesera hitzegiten duten poliglota funtzio linguistikoak eta hizkuntz eragozpenak aztertuko dituzte. Azkenik, Linda M. GALLOWAY, elebidunen hizkuntzaren garun tratamenduen banaketari buruzko azterketa kliniko eta esperimentaletaz eta eredu teorikoaz arituko da.

Sebastián BALET **La lengua materna y la enseñanza de idiomas modernos**. Studia Paedagogica. 1984. 13. zkia.

Hizkuntzen irakaskuntzan parte hartzen duten aldagaiak zeintzu diren eta hauek nola eragiten duten irakaskuntzaren prozesuan aztertzen du. Orokorrean erabiltzen den metodologia nolakoa den deskribatu ondoren, ze ezaugarri ez diren kontutan hartzen adierazten du.

Dominique CLIFT **L'immersion et le pluralisme culturel** Langue et société. 1984. 12. zkia.

Bertan aztertzen da nolako garrantzia izan duen inner-

sioak berritasun pedagogiko bezala, kontutan hartzen delarik, elebitasunak dakarren aberastasuna eta irekitasuna.

Marjorie BINGHAM WESCHE **Et les universités alors!** Langue et société. 1984. 12. zkia.

Frantsesez egindako inmersioak izan duen arrakasta agertzen digu artikulua honek, eta zer den kontutan eduki beharrekoa arrakasta hau segurtatzeko.

André A. OBADIA **Les piliers du nouveau bilinguisme** Langue et société. 1984. 12. zkia.

Honako hontan, inmersioaren beraren definizioa egiten da batetik, eta bestetik, zein ezaugarri bete behar dituen irakaskuntza inmersioak zuzen eramateko.

H.H. STERN **L'immersion: une expérience singulière** Langue et société. 1984. 12. zkia.

Bertan, inmersioaren definizioa eta historia egiten da, bai eta mota desberdinen sailkaketa ere.

M. SERRA **Bilingüismo y patología del lenguaje**. Revista de Logopedia y Fonoaudiología. IV. 2. zkia. 1984.

Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea den honek, hizkuntza zer den adierazten digu hasteko. Ondoren elebitasun mota desberdinak sailkatzen ditu gai gizarte mailan bai eta norberaren mailan ere. Segidan, elebitasun eta psikolinguistikaren arteko harremanaz arituko zaigu bai eta elebidunen pentsamendu eta garunetaz ere, azkenik patologia desberdinez mintzatzen zaigularik.



Michel PARADIS **Sobre la representación de dos lenguajes en un cerebro.** Revista de Logopedia y Fonoaudiología. IV. 4. zkia. 1986

McGill Unibertsitateko irakaslea dugu Michel Paradis. Berak jasotakoaren arauera, lau azterketa mota desberdin daude egiterik elebidunetan bi hizkuntzen organizazioari dagokionez; hala nola: linguistikoa, psikologikoa, neuropsikologikoa eta neurolinguistikoa. Linguistikoki elebidunek bere bi hizkuntzetako alderdi bakoitza, hiru modu desberdinetan antolatu dezakete; egitura linguistikoa maila bakoitza (fonologikoa, morfologikoa, sintaktikoa, semantikoa) :

- sistema bakoitza bestearengandik banatuta mantendu dezake .

- bigarren hizkuntzaren zati batzu, lehenengoarentzat bakarrik egokia den ereduaren arauera antolatu dezake.

- bi sistemetako elementuak nahas ditzake, hauetako bakoitza erabiltzerakoan.

Oroimenari dagokionez, honi buruz planteiatu diren hipotesi desberdinak jaso eta aztertzen ditu, gauza bera egiten duelarik elebidunen oroimenarekin ere.

Ondoren aztertuko duena, elebidunengan hizkuntz funtzioen lateralizazioa nola ematen den izango da, aurrekoan bezala, honi buruzko hipotesi guztiak jaso eta aztertzen dituelarik.

Bi hizkuntzen antolaketa intrahemisferikoaz, laburbilduz, elebidun koordinatuak bere bi hizkuntzak garunean hiru hauetako modu batetara antolatuak ditzakeela dio:

1- Bi hizkuntzetarako berdina den egitura neural funtzionala.

2- Hizkuntza bakoitzarentzat desberdina den egitura neural funtzionala.

3- Bi hizkuntzen artean desberdinak diren ezaugarrietarako egitura neural funtzionalak, eta bi hizkuntzetan berdina diren alderdietarako, biezako berdina den egitura neural funtzionala.

Azkenik, ulerketa eta produkzioaz arituko da, aztertzen duelarik, elebidunak hizkuntza bakoitzarentzat gramatika bat edo bi dituen: bat ulerketarentzat eta bestea produkzioarentzat.

J.M. SANCHEZ CARRION **Un futuro para nuestro pasado.** San Sebastian. 1987.

"Txepetx" goitizenarekin ezaguna dugun honek, bere doktoradutza tesia du honako liburu hau. Bertan, apendizaien teoria aztertzen du lehenengo atalean, bigarreanean, gatazka eta normalizazio linguistikoa sakontzen duelarik.

J. PEÑA CASANOVA **Manual de Logopedia.** Masson. Bartzelona. 1988.

Lehenengo kapitulan, komunikazio eta hizkuntzaz ari denean, hizkuntzaren definizioa egiten du, definizio beraren atal bakoitza aztertzen duelarik, hau izanikan ondoren azter-



tuko den guztiaren oinarria.

Bigarren kapituluñ, M.J. del RIO eta R. VILASECAk idatzia, hizkuntzaren jabetza eta garapenaz mintzatzen dira. Aipagarria dela diote, gaur egun hizkuntzari buruzko ikerketak, mintzatzen den subjektuaz ari direla eta ez hainbeste, zinen sistema abstraktu batez. Honen ondorioz, ezaugarri sozialak garrantzia hartzen du, eta interakzio eta kontextu kontzeptuak, hizkuntzaren jabetzari buruzko ikerketa askoren marko teorikoa osatzen dute. Modu berean eta logikoki, alderdi funtzionalei buruzko interesa asko gehitzen da. Ondoren, eta logikoki, alderdi funtzionalei buruzko interesa asko gehitzen da. Ondoren, garapenaren etapak deskribatzen dituzte eta azkenik, hizkuntzaren garapen normala eten edo aldatu dezakete faktoreak zeintzu izan daitezkeen azaltzen dute.




Hirugarren kapitulan, J. BAGUNYA, hizkuntzaren oinarri neurobiologikoa arituko zaigu.

M. PARADIS **Evaluación de la afasia en los bilingües.** Masson. 1989

Oraintxe argitaratzen ari den liburu honetan, honako gai hauek jasotzen ditu M. Paradisek: elebitasunari buruzko perspektiba neurolinguistikoa, elebidunentzako den afasia testaren deskribaketa, burutzapen puntuazio eta interpretazioa eta ondorioak azkenik.

Lore Erriondo.

CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA




- ▶ Euskal Herri osoan ordezkaturik dagoen Kutxa bakarra gara.
- ▶ Euskal Lehen Enpresa-Taldearen bultzatzaile garen Entitatea.
- ▶ Eta gainera... hona gure gaztetasuna:

1959	1988
Lehen Bulegoa	190 Bulego
Lehen Bezeroa	725.000 Bezero
Lehen Milioia	221.000 Milioiko aurrezkia

...29 urtetan soilik.

- ▶ Zatoz elkarlanean parte hartzera.

**Horrexegatik,
Lan Kide Aurrezkia
"Euskadiko Kutxa" da**



Euskadiko Kutxa

IRAKASKUNTZA
EUSKARAZ



IRAKASLE ELKARTEA